

IRITZIA | 9
MONDRAGON Health

GURE ELKARTEAK | 12-13
Esklerosi Anizkoitza

GERTUTIK | 18-19
Urko Aristi

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21
Liberatuak

Unibertsitate - Eskola Escuela Universitaria de Enfermería



ERIZAINZAKO GRADUA ETA KARRERA AMAIERAKO LANA

ERIZAINEN PRESTAKUNTZAN BESTE AURRERAPAUZO BAT | 5-8

ABENDUKO EKARPENAK

Abendua beti izan da bestelako hila-betea. Izan ere, umetatik guztiok egon gara abenduaren zain, argi eta oparien hila da-eta. Gainera, Euskararen Nazioarteko Eguna ere izan zen abenduaren 3an, eta Osakidetzak V. Joanes Etxeberri Saria eman zuen Donostia Unibertsitate Ospitalearen bidez, Arantzazu eraikineko seigarren gelan. Hori guztia nahikoa ez balitz, egun berean Euskal Kantuarren Musika Bidaiak ere izan ziren hizpide Pantxoia Etchegoin EKEko zuzendariaren eskutik, Arantzazu eraikineko ekitaldi aretoan.

Euskararen Eguna dela eta, historiari begiratu baino ez dago bere aztarnen berri eduki ahal izateko. Horiek horrela, Errepublika garaian, antzerki, olerki eta bertso-lari egunak antolatuta ziren Eusko Ikaskuntzako Euskaltzaleak erakundearen bitartez. Gero, Espai-

niako Gerraren ondorioz, 1949an, Iparraldera jo zuten euskaltzaleek zein bertokoek elkar hartuta Lehenengo Euskararen Eguna ospatu zuten. 1995ean, ordea, Euskal Herrikan kanpo bizi ziren euskaldunen eskakizunei erantzun nahian, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak Euskararen Eguna egin zuten ofizial, Xabierko Frantzisko deunaren egunean.

Bestetik, 1936ko abenduaren 1ean, egungo Medikuntza Fakultate jarri zuten abian, etorkizuneko Euskal Herriko Unibertsitatearen hazia, hain zuzen ere. Halaber, Abenduaren harira, Osatuberrri aldizkariak bere lehenengo denboraldia beteko du hilabete honetan. Aurreneko zenbakia kaleratu genuenetik urtebete luze igaro da, eta zazpi zenbakiotan erreportaje zein elkarrizketa asko eman ditugu argitara. Aipatu beharrekoa da

irakurleen interesa handia izan dela eta harpidedunen kopurua nabarmen igo dela. Hartara, 7.000 ale banatzen ditugu gaur egun, erakundeak, ospitaleak, osasun-zentroak eta langileak aintzat hartuta.

Beraz, abenduak edo gabonilak, amorru biziko hilak, hainbat gertakizun ospatzeko bidea ematen digu, baina, horrez gain, ilusioaren kandela ere pizten du denontzat. Esandako guztiarengatik, eskerrik eta zorionik beroenak euskararen eta arlo sanitarioaren garapenean parte hartzen duzen guztioi, abenduan, euskararen hilean.

ABENDUA

JARDUNALDIA

2012ko abenduaren 14an. Galdakao-Usansolo Ospitaleak eta AKEB erakundeak (Asistentziaren Kalitateko Euskal Elkarte) III. ESK (Erantzukizun Sozial Korporatiboa) jarduerak antolatuko dituzte: *Ingurumena osasuna da.*

Oraingoan jardunaldiak ingurumenaren arloa hartuko du ardatz, besteak beste, ingurumenak minbizian daukan eragina, hiri garapen jasagarria, edo Galdakao- Usansolo Ospitalean ezarritako praktika onak.

URTARRILA

ZENTRO SANITARIOETAKO INGURUMEN KUDEAKETARI BURUZKO VI. BILTZAR NAZIONALA

2013ko urtarrilaren 24 eta 25ean. Zentro Sanitarioetako Ingurumen Kudeaketari buruzko VI. Biltzar Nazionala izango da Coruñan. Txostenak aurkezteko epemuga: 2012ko abenduaren 1a. Informazio gehiago jaso nahi baduzu: www.gestionambiental2013.org

OTSAILA

OSPITALEEN ETA KUDEAKETA SANITARIOAREN GAINEKO 18. BILTZAR NAZIONALA

2013ko otsailaren 20tik 22ra Bilboko Euskalduna Jauregian, Ospitaleen eta Kudeaketa Sanitarioaren gaineko 18. Biltzar Nazionala egingo da.

Komunikazio zientifikoaren laburpenak jasotzeko epea 2012ko azaroaren 20an amaituko da. Izena emateko orria jasotzeko epea 2013ko otsailaren 8an amaituko da. Kuota murriztuko epea abenduaren 20ra arte da. Otsailaren 8tik aurrera izen-emateak Biltzarren egoitzan egingo dira.

MAIATZA

ESTATUKO ZELARI ETA ARDURADUNEN XIII. JARDUNALDIAK

Noiz: 2013ko maiatzaren 16an, 17an eta 18an.

Non: Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian.

Zelaria: pazientearentzako arretarekiko konpromisoa esloganarekin, Estatuko Zelari eta Arduradunen XIII. Jardunaldiak egingo dituzte.

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45, 01006
 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberrri@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Azaleko argazkia:

Josetxo Arantzabal

Argazkiak:

Arteman/Josetxo Arantzabal/
 Xabi Rezabal / Artium

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeu ere protagonista izan zaitzake aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko, idatzi osatuberrri@osakidetza.net helbidera.



5



12



14

18
19

AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN  Erizaintzako Gradua
9	IRITZIA MONDRAGON Health
10 11	OSASUN URRATSAK Uretan erditzea
12 13	GURE ELKARTEAK Esklerosi Anizkoitza
14 16	PLAZATIK  Artium. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
17	OSASUN-ZENTROAN Olagibel Osasun-Zentroa
18 19	GERTUTIK Urko Aristi
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Liberatuak
22 23	ATZERA BEGIRA 1936ko Medikuntza Fakultatea
24 25	OSAKIDETZAN BIZITZA Oinetakoak jantzi eta korrika egitera
26	JARDUNALDIA Bilbo Eskualdeko Hobekuntza eta Berrikuntza proiektuen bosgarren jardunaldia
27	TXAPELA BURUAN Busturia

CRUCES SAREAN

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE
OSPITALEAREN JAKINTZA SAREA

Cruces Sarean on line plataforma bat da, Ospitaleko profesional guztientzat eta gurekin lotutako erakundeentzat erabilgarria, komunikazioa sortzea eta dokumentuak, esperientziak zein jakintza elkarrekin trukatzeko helburu duena. Gure arazoei konponbideak emateko eta gure lana eta, azken batean, eskaintzen dugun zerbitzu publikoa hobetzeko.

Bertan, antzeko interesak eta antzeko arazoak dituzten pertsonak etengabe egon daitezke hartu-emanetan; era horretan, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko toki komun bat sor dezakete.

Eman izena *Cruces Sarean* eta deskubritu eskaintzen dizkizun aukera guztiak!
<http://osakidetza.blog.euskadi.net/cruces/>

AZKEN BELAUNALDIKO ROBOT KIRURGIKOA

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Zirujauen eskuek aurrerapausoa eman dute *Da Vinci* robot kirurgiakoaren laguntza jaso eta gero. Izan ere, 1,93 milioi euro inbertitu du Osakidetzak eta, horiek horrela, bere lehenengo ebakuntza azaroaren 5ean izan zen; harrezkerotik, prostata minbiziaren kontrako lau ebakuntza erabili dute.

Euskadiko Elkargoko Donostia, Araba eta Basurtuko ospitaleek eta bi klinika pribatuk *Da Vinci* robota lehenagotik ere bazeukaten ere, Gurutze-ta Unibertsitate Ospitaleak erositako azken hau hirugarren belaunaldikoa da. Lehengoan aldean hobekuntza batzuk dakartza, esaterako, pilotuen antzerako balizko simulazioak zirujauen prestakuntzan hobeto jarduteko. Egun, pazienteak operatzeko zenbait sarbidetatik egiten da ebakuntza, baina hurbileko etorkizunean, ordea, ebakidura bakarra egitea dute helburu.

OSASUN KARPETAREN AURKEZPENA

OSAKIDETZA

Osakidetzak *osasun karpeta* zerbitzua martxan jarri du eta, horretarako, Internet bide dela, gaixoei euren osasunaren inguruko informazio guztia eskuragarri izatea ahalbidetuko dien tresna sortu du.

Horiek horrela, pazienteak bere osasun informazioa begiratu ahal izango du modu seguruan eta konfidentzian. Era berean, osasunerako interesgarriak diren edukietan sartu ahal izango da. Osakidetza webgunetik sartu ahal izango da *osasun karpeta* edo *micarpetadesalud.osakidetza.net* ataritik.

NAN elektronikoaren bitartez edo osasun txartel berriarekin erabili ahal izango da, eta erietxean eskatu behar den pasahitzarekin segurtasuna bermatzen dela azaldu dute. Gaixo bakoitzak bere karpeta ikusi ahal izango du, eta une honetan erradiologiar, patologia anatomikoari eta lehen mailako arretari dagokien informazioa dago eskuragarri. Baita tratamendu farmakologikoak, alergiak eta mediku hitzorduak ere.

Datu horiek gaixoaren osasun informazioaren % 60 direla azaldu dute, baina datorren urterako % 100era iristea espero dute, eta beste osasun etxeetako informazioa ere sartzea aurreikusten dute (pribatua eta publikoa).

Tresna horren bidez, "edozein unetan edozein tokitan zaudela", historialaren eta tratamendu farmakologikoaren berri jaso ahalko dela goraipatu dute.

BASURTUKO OSPITALEA, ESTATUKO ONENA PAZIENTEEN SEGURTASUNEAN

BASURTUKO OSPITALEA



Bilboko Ospitalea 163 zentrori gailendu zaie, horietatik 126 Osasun Sistema Nazionalekoak izanik, eta beste 37ak, berriz, pribatuak.

Basurtuko Ospitalea Estatuko onena da pazienteen segurtasunaren alorrean, eta, horregatik, saritu dute *TOP20 Ospitaleen Sarietan*, Basurtuko Ospitaleak berak aditzera emandakoaren arabera.

Sariak lasist osasun informazio zerbitzuetako enpresak ematen ditu. 13. edizioan 163 zentrok parte hartu dute boluntario, eta horietatik 126 Osasun Sistema Nazionalaren barruan daude. Gainontzeko 37ak pribatuak dira.

Basurtukoari bere "eraginkortasunagatik, asistentziaren kalitateagatik eta praktika klinikoaren egokitasunagatik" eman diote saria, baita kirurgia egin eta arazo larriak dituzten pazienteen artean hildako gutxi izaten direlako eta zainketa medikoek infekzio gutxi sortzen dituztelako ere.

BERRI LABURRAK



ERIZAINZAKO GRADUA ETA KARRERA AMAIERAKO LANA

ERIZAINEN PRESTAKUNTZAN BESTE AURRERAPAUZO BAT

Gaur egun, erizainak profesional errespetatuak dira, eta legearen onspena ere badute. Gizarteari eskaintzen diote zerbitzua, eta pertsonen babes fisiko zein emozionala da beraien egiteko nagusia. Erizainak ondo prestatuta dauden profesional sanitarioak dira; ezagutza, jarrera eta trebetasun bereziak dituztenak. Erizainek ongizatea eta bizi kalitatea bultzatzen eta sustatzen laguntzen dute eta osasun sistemaren iraunkortasunarentzat ezinbestekoak dira.

Erizaintza arloak ibilbide luzea egin du gaur egungo prestigioa irabazteko. Azken 30 urteotako bidea ez da nolanhikoa izan, eta zailtasun ugari egin behar izan diote aurre erizainek. Azken 30 urteotan aldaketa sakonak jasan dituzte, bai hezkuntzan, bai garapen profesionalan. Historia apur bat eginez gero, erizainen prestakuntzaren gaineko aurreneko erreferentzia 1857ko irailean aurki daiteke. Urte hartakoa da lehenengo erreferentzia, erizaintza arloko praktikantea eta emagina aipatzen direlarik. Beste mugarri garrantzitsu bat 1977an iritsi zen. Urte hartan, erizaintza ikasketak unibertsitatera iritsi ziren, Erizaintzako Unibertsitate Diplomatuaeren titulua sortuz.

2003an Espainiako unibertsitate sistema Europako Goi Mailako Ikasketen Eremuan integratu zen eta graduen titulazioak sortu ziren. Testuinguru horretan sortu zen Gasteizko Erizaintza Eskolan Erizaintza Gradua, lau urteko iraupeneko ikasketa bilakatu zelarik. Gainera, graduaren ondoren aukera dago master eta doktore ikasketak egiteko.



EUROPAKO EREMURA EGOKITUTAKO IKASKETAK

Irakaskuntzaren paradigma aldatu du Europako Esparru berriak, eta irakasleen zein ikasleen arteko harremanak ere aldarazi ditu. Oro har, aldaketa sakona eragin duela aipatu daiteke. Irakaskuntza eredu klasikoak bidea utzi behar dio eredu dimentsioaniztun berri bati, ikasleen ikasketa prozesua indartuko duen eta orain arteko eredura mugatuko ez den bati. Alegia, irakaslearen ikasgaiaren transmisio hutsak beste aukera zabalago bati eman beharko dio bidea. Paradigma berri horrek baditu ezaugarri oso bereziak: besteak beste, bizitza osoko ikaskuntza prozesua bultzatzen du, kompetentzia anitzeko profesionalak sortu nahi ditu gizarte-aldaketei erantzuteko ere gai izango direnak. Gurean, Gasteizen, erizaintzaren arloan gizabanakoen eta komunitatearen osasunaren beharrei etengabe erantzuten jakingo duten profesionalak prestatu nahi ditugu. Hori da gure erronka eta datozen urteotako mugarri nagusia.

Orain arteko ereduak bizitzaren une konkretu batean ezagutzaren eskuratzea lehenesten bazuen, Europatik etorritako eredu berriak irakaskuntza integrala bultzatzen du eta ikaslea da hezkuntzaren eragile nagusia. Lau zutabe nagusi ditu Eu-

ropako Esparruak bultzaturiko hezkuntza eredu berriak:

1) Ezagutzen ikasi. Ulermenerako eta informaziora iristeko instrumentuak eskuratu memoria biologikoa eta artifiziala erabiliz; 2) Egiten ikasi. Ezagutzak aplikatu eta eragina izan dezaten; 3) Elkarrekin bizitzen ikasi. Besteekin parte hartzen eta kooperatzen ikasi; 4) Izaten ikasi. Aurreko hiru baliabideak hartzen ditu bere baitan funtsezko prozesu honek. Gizakiari askatasunez erabakitze eta bere burua ezagutzeko baliabideak ematen dizkio.

“Bizitza osoko ikaskuntza prozesua bultzatzen du, kompetentzia anitzeko profesionalak sortu nahi ditu gizarte-aldaketei erantzuteko ere gai izango direnak”.

ERRONKA GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLARENTZAT

Testuinguru honetan aukera berriak sortuko dira Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolarentzat, eta bertako ikasketa arduradunentzat “positiboan izango da aldaketa, bai metodo-

gian, bai edukiak planteatzerako garaian”. Profesional berriak profil anitzagoa izango du, “Erizaintzako Gradua eskuratuko duenak ezagutza, trebezia eta jarrera egokia izango du bizitzaren zikloan eman daitezkeen osasun-gaixotasun prozesuetan dagokion bezala erantzuteko”, adierazi digute Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako ordezkariak.

Gaur egun prestakuntza jasotzen ari diren erizainek printzipio etikoetan eta legea aintzat hartuta jokatu behar dute. Egoera konplexuetan erantzunak emanez eta komunikazio bide egokiak aukeratu. Zaintzaren arloan liderraren jarrera erakutsi beharko dute.

ZEINTZUK DIRA ERIZAINZAKO GRADUAREN TITULAZIOAREN KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK?

Erizaintza ikasketak egin asmotan dabilenak, erizainekin harremana dutenak, gaur egungo ikasleek, arlo sanitarioko beste profesionalak... askok jakin nahiko dute zeintzuk diren Erizaintzako Graduaren tituluaren kompetentziak. Guztira, hamazortzi dira Espainiako Ministerioak ezarritakoak:

1. Pertsonen osasun beharrei era egokian erantzuten jakin, ikuspegi tekniko eta profesional aproposarekin

eta unean uneko jakintza zientifikoak segurtasuna eta kalitatea erabiliz, betiere legea eta kode deontologikoa aintzat hartuta.

2. Pertsonentzat, familientzat eta taldeentzat Erizaintzako zaintza prestatu eta planifikatu, betiere prozesuetan oinarritutako ekintzak bideratuz.
3. Erizaintzako oinarritzko printzipio teoriko eta metodologikoa ezagutu eta aplikatu.
4. Pertsonaren jarrera interaktiboa ulertu, genero, talde edo komunitate ezberdinetakoak izanda, betiere tesuinguru sozial eta kultur antza aintzat hartuta.
5. Zaintza sistemak diseinatu bere eragina aztertuz eta beharrezko aldaketak ezarri.
6. Erizaintzan hartu beharreko erabakiak arlo zientifikoan oinarritu.
7. Pertsonen jokabidea ulertu, beraien ezaugarri fisikoak, psikologikoa eta sozialak aintzat hartuta eta inongo aurreiritzirik gabe. Norbakoaren iritzi askatasuna, sinesmena, baloreak eta intimitaterako eskubidea kontuan hartuko direla ziurtatuz.
8. Pertsonen parte-hartzea sustatu, eta informazioa eta autonomia errespetatu, betiere bizi duten osasun-gaixotasun prozesuari egokituta.
9. Bizitza osasuntsua sustatu.
10. Pertsonen osasuna eta ongizatea zaindu, beraien segurtasuna ziurtatuz.
11. Komunikazio bide egokiak ezarri paziente, familia, talde sozial eta lankideen artean, eta osasunerako hezkuntza sustatu.
12. Espainiako erizaintzaren kode etiko eta deontologikoa ezagutu.
13. Finantzazio sanitario eta sozio-sanitarioaren printzipioak ezagutu.
14. Ebaluazio mekanismoak ezarri, betiere arlo zientifiko teknikoak eta kalitatezkoak aintzat hartuta.
15. Profesionalen taldearekin lan egin oinarritzko unitate gisa.
16. Informazio sanitarioaren sistemak ezagutu.
17. Erizaintzako zaintza egin osasunaren atentzio integralean oinarrituta.
18. Erosotasun neurrien eta sintomen atentzioen estrategiak ezagutu, betiere zainketa aringarrietan aplikatzeko eta gaixotasun terminalak dituztenei laguntzeko.

“Erizaintzako Gradua eskuratuko duenak ezagutza, trebezia eta jarrera egokia izango du bizitzaren zikloan eman daitezkeen osasun-gaixotasun prozesuetan dagoen bezala erantzuteko”, adierazi digute Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako ordezkariak.

KARRERA AMAIERAKO LANA

Aipatu kompetentziak eskuratuta eta lau urteko karrera egin ondoren, Erizaintzako Graduako ikasleek Karrera Amaierako Proiektua egin beharko dute. Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan karrera amaierako lana sei kredituko da, eta lana EHUK ezartzen dituen arauetan oinarrituta egin beharko da, baita ebaluazioa ere. Baina, zer da Karrera Amaierako Proiektua eta zein da bere jomuga edo helburua?

Ikasle bakoitzak, bakarka, zuzendari baten gidaritzapean lan bat edo proiektu bat egin beharko du, eta erakutsi beharko du lau urteko ikasketa prozesuan zeintzuk izan diren eskuratu dituen kon-



petentzia, trebetasun eta gaitasunak erizaintzaren arloan. Karrera Amaierako Proiektuan ikasleak lau urteko prozesuan ikasitakoa sakondu behar du. Proiektuak erantzun beharko dio ikasleak erizaintza arloan jasotako ezagutzari. Era berean, ikasleek proiektuaren bitartez iritzia eman beharko dute; irizpide zientifiko, teknologiko eta etikoetan oinarritutako iritzi jantzia.

PROIEKTU MOTAK

Bi erako proiektuak egin ahal izango dituzte ikasleek. Batetik, erizaintza arloko literaturaren errebisio kritikoarekin zerikusia izan dezaketen lanak; eta, bestetik, parte-hartzea bultzatu dezaketen proiektuak. Alegia, erizaintza arloan interbentzioak proposatzen dituztenak osasun hezkuntzaren arlotik gestioaren alorrera... edozein esparrutan.

Proiektua aukeratuta prozesuak irauten duen bitartean ikasleak tutore baten laguntza izango du. Hark bideratuko du proiektuaren garapena eta helburuak betetzen lagunduko dio ikasleari. Gidaritza lan horretarako Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak gaur egun lanean diharduten erizain profesionalen laguntza dauka, ondo prestaturiko eta esperientzia handiko profesionalen babesa, eta haiek dira askotan ikasleen gidari. Lana amaituta ikasleak Karrera Amaierako Proiektua defendatu beharko du Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren hiru irakaslek osatutako epai-mahaiaren aurrean.

“Bi erako proiektuak egin ahal izango dituzte ikasleek. Batetik, erizaintza arloko literaturaren errebisio kritikoarekin zerikusia izan dezaketen lanak; eta, bestetik, parte-hartzea bultzatu dezaketen proiektuak”.

IKASLEAK POZIK: “OSO AUKERA ONA IZAN DA ETA UNE APROPOSEAN IRITSI DA”

2012-2013 IKASTURTEAN DIPLOMATURA IKASKETETATIK GRADURA EGOKITZEA ERABAKI DUTEN IKASLEEN IRITZIA JAKIN NAHI IZAN DUGU. ALEGIA, DIPLOMATURA IKASKETAK ALBORATU ETA EUREN PRESTAKUNTZA URTEBETEZ LUZATZEA ERABAKI DUTEN IKASLEEN IRITZIA, GRADURA MOLDATZEA ERABAKI DUTENENENA.

Zergatik hartu duzu diplomaturatik gradura egokitzeko erabakia?

Jon Ander: Ondo hausnartutako erabakia izan da, izan ere, erizain diplomaturatik izateari uko egin behar izan diogu.

Lidia: Aukera paregabea dela uste dut eta etorkizunera begira mesede egingo dit profesional moduan. Gainera, egungo egoera ekonomikoa ikusirik prestatzen jarraitzea aukera ona da.

Maria: Nire egoera akademiko eta pertsonala aztertu nuen eta iruditu zitzaizdan graduaren aldeko apustua egin behar nuela. Gainera, gaur egungo lan eskaintza txikia da.

Sandra: Erizaintzako Gradua egiten jarraitzea erabaki nuen, batez ere, prestakuntza hobetu eta esperientzia hartzen jarraitu nahi nuelako. Gainera, gaur egungo lan egoera ez da oso ona. Era berean, atzerrira lan egitera joatea da nire asmoa, eta Europako Esparrura egokitutako ikasketekin nahikoa izango dut lana bilatzeko.

Aitziber: Nire egoera akademikoaren gaineko hausnarketa egin ondoren erabaki nuen gradura egokitzea nire ikasketak.

Nahia: Nire prestakuntzan sakontzen jarraitzeko aukera paregabea iruditu zitzaizdan.

LA OPINIÓN DE LOS ALUMNOS “Además de perfeccionar técnicas instrumentales, vamos a tener la oportunidad de desarrollar otro tipo de habilidades”

¿En qué aspectos crees que tu formación, aunque solo sea por un año, va a profundizar en el alcance de las competencias profesionales como graduado?

Jon Ander: Considero que este año me está sirviendo para llevar a cabo mi formación de una forma autodirigida, es decir, enfocada desde las necesidades de aprendizaje que yo detecto de manera autónoma, así como con la colaboración de los tutores externos e internos del Practicum. Además, aunque realicemos las prácticas en calidad de alumnos, el bagaje previo acumulado nos ayuda a experimentarlas de forma más cercana al rol profesional.

Lidia: Además de perfeccionar técnicas instrumentales, vamos a tener la oportunidad de desarrollar más otro tipo de habilidades, como son la comunicación con los pacientes y familiares.

Sandra: Creo que nosotros somos un curso muy afortunado porque vamos a ser la única promoción que haya realizado sus estudios en Diplomatura y posteriormente se haya adaptado al grado. De esta manera, hemos tenido la posibilidad de adquirir los conocimientos necesarios de Enfermería, de la misma manera, que lo realizarán las próximas promociones de grado, pero nosotros tenemos una oportunidad única.

Zuriñe: No sé si será mejor o peor ya que yo he cursado 3 años de diplomatura y uno de grado, pero yo en diplomatura desde un principio comenzaba a formar mis competencias trabajando con el equipo de enfermería de la unidad. Ahora en cambio, en primero de grado no realizan casi prácticas, y creo que es importante integrarte desde el principio porque es el primer paso hacia el mundo sanitario.

Aitziber: Considero que este curso nos ayudará a coger mayor experiencia profesional y confianza.



Mikel Alvarez
MONDRAGON Health.

Duela bost bat urte, MONDRAGON Korporazioak, bere Kongresuan izandako hausnarketa baten ondoren, bi negozio arlo ezberdin erabaki zituen bere dibertsifikazio edo aniztasun estrategikorako: bata, energia eta iraunkortasunarekin zerikusia izan zezaketen enpresa proiektuak garatzea; eta, bestea, osasun arloari lotutako proiektu berriak garatzea.

Osasun arloa aipatzen dugunean eremu zabal bat aipatzen dugu, non zerbitzu eta jarduera ezberdin asko sartzen diren, besteren artean: Osasun zerbitzu asistentzialak, farmaziari eta botikei lotutako jarduerak eta osasun teknologiek lotutako zereginak.

Aipatzen diren datuen arabera, Espainian osasun jarduera ekonomikoak urtero 100 mila milioi euroko mugimendua eragin dezake, eta horietatik farmaziari lotutako zereginak 14 mila milioi atala beteko lukete eta osasun teknologiko atalak beste 8 bat mila milioi eurokoa. Garbi ikusten denez, jarduera handieneko arloa osasun asistentzia bera da, osasun zaintzari lotutako jarduera, alegia.

Osasun teknologiak aipatzen ditugunean, farmaziako teknologiak albo batera lagatzen baditugu, osasun zainketetarako (arreta, diagnostikoa eta tratamendua) erabiltzen diren teknologia guztiak gainean ari gara, hala nola, irudien bitarteko diagnostikoa, in vitro diagnostikoa, tratamendurako ekipoak eta zaintzan erabiltzen diren "medical devices" guztiak.

Osasun teknologiko arlo hori jarduera industrialarekin lotuta dago eta Euskadin garapen txikia dauka. Ematen diren datu baten arabera, Euskadin jarduera ekonomiko horri lotutako 26 enpresa egongo lirakeke, eta 100 bat milioi salmentak eragin eta

“MONDRAGON Health”

420 bat lanpostu zuzen emango lituzkete. Datu hori harrigarria izan liteke, kontutan hartzen badugu Euskadin beste industria motek (automobila, osagai elektrikoak...) duten pisua, behintzat.

Azken 10 urteotan Euskal Gobernuak, estrategia ezberdinak erabiliz, osasunari lotutako Ikerketa eta Garapen programak bultzatu ditu, eta horren ondorioz gure lurraldeko hainbat teknologia zentrotan ikertzaileek bioteknologian murgildu dituzte euren indarrak. Baina oraindik ere I+G alorreko programa horietatik sortutako enpresa eta negozioek haur txiki baten indarra baino ez daukate.

Hortxe kokatzen da MONDRAGON Health-en estrategia: gure kooperatibagintza eredia erabiliz negozio berriak sortzea osasun arloan. Gure estrategia ardatzak hauek dira: 1. Zerbitzuak, batez ere pertsona nagusien zaintzari lotutako zerbitzuak. 2. Osasun industria berriak. 3. Osasun arloko formazio berriak. 4. Proiektu globalak.

Zerbitzuen arloan, pertsona nagusientzat egoitzak kudeatzen ditugu, 13 egoitzatan zabalduak 700 bat ohe kudeatuz. Jarduera horretan GSR enpresa kooperatiboa aritzen da, eta garapen sendoa darama azken urteotan. Pertsona nagusien zaintzan Teleasistentzia Zerbitzua ere eramaten dugu, eta 26.000 herritarrentzat emanaz prestakuntza hau. Beste zerbitzu batzuk ere ematen ditugu, baina luzeegi izango litzateke hemen banan-banan zehazten hastea.

Industria arloan ere zenbait enpresa bultzatu eta sortu ahal izan ditugu urteotan, hala nola, Oiarso (Bexen medica), Osatu (Bexen cardio), Saludnova, Fagor Healthcare, KIRO Robotics, Smart Health Services... Kasu horietan gure helburua da osasun zerbitzuei produktu eta zerbitzu berriak eskaintzea eta, enplegu berria sortuz, gure gizartearentzat aberastasun soziala ereitea.

Formazioari dagokionez, bi urte daramatzagu Enpresagin-

tzako Fakultatean gestio ikastaro bat ematen Osakidetza mediku eta erizainei. Ikastaroa burutzeko 100 bat ordu betetzen dituzte ikasleek, eta ikasleen aldetik orain arte izandako emaitzak benetan oso ondo baloratuak izan dira. Dagoeneko 120 bat ikasle izan dute parte hartzeko aukera. Formazioan, halaber, 2013/2014 ikasturtean Ingeniaritza Fakultatean Ingeniaritza Biomedikoa gradu berri bat jarriko dugu martxan. Formazio edo hezkuntza arlo horiek jarduera guztiaren ardatz moduan ikusten ditugu, zeren industria eta enpresa medikoek gazte gero eta prestatuagoak beharko baitituzte halabeharrez, euren lehiakortasuna garatzeko.

Proiektu globalak aipatzen ditugunean, gure MONDRAGON Korporazioak daukan enpresa ahalmenak bateratuz bezero bati eskaini diezaioketuz ari gara. Eta arlo hori nazioartekotzearekin lotzen dugu batipat.

Laburbilduz, esan liteke gure korporazioan, gure herrian bezala, gaur ezagutzen ditugun industria eta zerbitzuak aldatuz joango direla eta osasun arloa interesgarria izan litekeela etorkizuneko gizartean enplegua eta aberastasun soziala ekoizteko. Horixe da gure ametsa eta asmoa, bide horri eredu kooperatiboaren ekarpena gehitu nahi diogu, "lanari gizatasuna" gehitu, alegia.

Gure Korporazioan, gure herrian bezala, gaur ezagutzen ditugun industria eta zerbitzuak aldatuz joango dira eta osasun arloa interesgarria izan liteke etorkizuneko gizartean enplegua eta aberastasun soziala ekoizteko.



URETAN DILATATZEA ETA ERDITZEA, EMAKUMEEN KALITATEARENTZAKO BESTE AUKERA BAT

GOIERRI-UROLA GARAICO OSPITALEAN URETAN DILATATZEKO ETA ERDITZEKO AUKERA ESKAINTZEN DUTE AZAROAREN HASIERATIK. ARRASATEKOAREKIN BATERA, ZUMARRAGAKO LEHENA IZAN DA OSAKIDETZAKOEN ARTEAN. ADITUEN ESANETAN, UR BEROAK EMAKUMEA HOBETO DILATATZEN LAGUNTZEN DU ETA HALA DILATATZEA EROSOAGOA DA BAI AMARENTZAT, BAI UMEARENTZAT. ZUMARRAGAN KOKATUTA DAGOEN OSPITALEAK ASPALDITIK DIHARDU ERDITZE AHALIK ETA NATURALENAK ERRAZTEN ETA AITZINDARIA DA HORREN ZIURTAGIRIAK ESKURATZEN.

Goierrri-Urola Garaiko ESI Zumarraga, Legazpi, Beasain, Ordizia, Lazkao, Azpeitia eta Azkoitiko Lehen Mailako Unitateek eta Zumarragako Ospitaleak osatuta dago. Ospitalean urtero 940 erditze inguru izaten dituzte eta joera gorantz doala jakinarazi dute.

Osakidetzak eta Espainiako estatuko osasun-zerbitzu gehienek protokolo berri bat sinatu dute erditzeak interbentzio txikienarekin gauzatzeko

erraztasunak jar ditzaten. Horren barruan, erditzeetarako bainuontziak erabiltzeko praktika sartzen da beste aukera batzuen artean, eta Goierrri-Urola Garaiko Ospitaleak azaroaren hasieran zerbitzu hori ezarri du nahi duten emakume guztiek erabil dezaten.

Goierrri-Urola Garaiko Ospitaleko erditzeen **gainbegirale** den Feli Rodríguez azpimarratu du egiazta-

PRESTATUTAKO LAN-TALDEA

Feli Rodríguez (ezkerretik hasitako bigarrena), Goierrri-Urola Garaiko Ospitaleko erditzeen gainbegiralea eta lan-taldeko hainbat kide bainuontzi berriaren ondoan.

Adituen esanetan, ur beroak emakumea hobeto dilatatzeko laguntzen du eta hala dilatatzeko erosoagoa da bai amarentzat bai umearentzat.

tuta dagoela ur beroak emakumea dilatatzeko laguntzen duela: “Odol fluxua hobeto banatzen da, uretan **grabitate** eta pisu txikiagoa dago, emakumea hobeto mugitu daiteke eta muskulatura erlaxatu egiten da. Hori guztia ona da erosoago erditzeko eta erditzeko hobeto prestatuta egoteko”.

Arrazoi horregatik, Zumarragako Ospitaleko amatasun gunea berri-tzearekin bat, bi erditze gelen artean bainuontzi egokitu bat jarri zuten, eta, premiarik balego, bigarren bat jartzeko ere lekua dute prest. Eta, horren aurretik, jakina, ospitaleko lau **emagin** Gironan izan ziren astebetez horren gaineko prestakuntza jasotzen.

Ospitalean erabiltzen duten bainuontzia zeregin horretarako egina dago: oso zabala da, alde batetik, sarrera du eta, erresistentzien bitartez, uraren tenperaturari ondo eusten dio. Bainuontziko uraren tenperatura 37 graduko da, giza gorputzak duen bera. “Bertan erditzeak egiteko aukera dago, baina guk, batez ere, emakumea dilatatzeko laguntzeko erabiltzen dugu; hori da orain arte guk lantzen diharduguna, nahiz eta bertan erditzeko ere prestakuntza dugun”, azaldu du Rodríguezek.

Antzinako Egipton boteredunak uretan erditzen ziren, eta Kreta uhartean agertu diren margolan batzuen arabera jakin dugu han uretan erditzeko ohitura zegoela.

EUSKAL HERRIAN AITZINDARIAK

Zumarragako da halako bainuontzia ezarri duen Osakidetzako lehen ospitalea, Arrasateko Eskualde Ospitalearekin batera. “Euskal Herrian aitzindariak gara, baina ez estatuan”, azpimarratu

du. Izan ere, Alacanteko Acuario klinika izan zen lehena eta gerora, gaur egun, Katalunian, Valentzian eta beste leku batzuetan ere bada horren aukera. “Gogoan dut Alacanteko Acuario klinikara Euskal Herriko bikote dezente joaten zirela erditzera. Aspaldidanik izan da eskaera uretan dilatatu eta erditzeko, eta, azken urteotan gorantz joan da”.

Erditze naturalaren aldeko zenbait talderen esanetan, uretan erditzea dagoen modu natural eta primitiboena da. Zumarragako Ospitaleko erditzeen gainbegiraleak onartu du, ikerketen arabera, antzinako Egipton boteredunak uretan erditzen ziren, eta Kreta uhartean agertu diren margolan batzuen arabera jakin dugu han uretan erditzeko ohitura zegoela. Halatan, gogoan du gaur egun Kalifornia den lurraldean bizi ziren indioek ere erditzeko modu hori erabiltzen zutela. Eta Europari dagokionez, XIX. mendean emakume batek dilatatu nahian denbora asko zeramala ur **tina** batean sartu zen eta berehala jaio zen umea. Ordutik, Europan ere ikertzeari ekin diote.

Uretan erditzea aukera bat da, beste bat gehiago. Garrantzitsuena da emakumeak bere beharretara egokitzen diren aukera ahalik eta gehien izatea. Bera da erabakia hartu behar duena.

BESTE AUKERA BAT ASKOREN ARTEAN

Hala ere, Goierrri-Urola Garaiko Ospitaleko emagin nagusiak jakinarazi du uretan erditzea aukera bat dela, beste bat gehiago. “Garrantzitsuena da emakumeak bere beharretara egokitzen diren aukera ahalik eta gehien izatea; eta, jakina, bera ondo informatuta dagoenean, nahi duena **hautatzea**. Bera da erabakia hartu behar duena. Gainera, emakume, erditze eta egoera bakoitza desberdina da. Emakumea da protagonista, eta emaginok bertan gaude edozer gauzatan lagundu eta guztia ondo joan dadin kontrolatzeko”.

INTERBENTZIO TXIKIENA EGITEKO TENDENTZIA

Orain arte erditzeko bainuontzirik izan ez badute ere, Goierrri-Urola Garaiko

UR BEROAREN ABANTAILAK

Ur beroari esker, odol fluxua hobeto banatzen da, uretan grabitate eta pisu txikiagoa dago eta emakumearen muskulatura erlaxatu egiten da.



Ospitalea aspaldidanik izan da erditzeetan interbentzio txikiaren egitearen aldekoa. Hala, 2002an IHAN Ospitalearen titulua eskuratu zuen. IHAN gaztelezako inizialek osatzen dute, baina esan nahi duena da erditzeetan lehenesten dutela amaren eta umearen azalen arteko kontaktua, erditu bezain laster amak umeari titia ematea eta erditzean ahalik eta interbentzio txikiena egitea, beste oinarri batzuen artean. Goierrri-Urola Garaikoa izan zen titulu hori eskuratu zuen Osakidetza lehen ospitalea. Gerora, 2007an, hain zuzen ere, titulu hori berriro egin zuten. Arrazoi horregatik sasoi batean ospitale horretara beste eskualde batzuetatik ere bikote asko joaten ziren hara erditzeko asmoz, eta hori nolabait mugatu behar izan zuten.

BALDINTZA BATZUK BETE BEHAR

Modalitate honen onurak behin azalduta, Feli Rodriguezek gogoratu nahi du berau erabiltzeko baldintza zehatz batzuk betetzea ezinbestekoa dela. Besteak bes-

te: haurdunaldiak garapen egokia izan behar du, gorabehera handirik gabekoa, haurdunaldiko 37. eta 42. asteen artean egon beharra dago eta **uzkurdurak** dinamika espontaneoak izan behar du. Ezinbestekoa da poltsa osorik egotea, inola ere ez apurtuta. Horiez gain, emakume horiek ezingo dute epidurala hartu eta ume baten baino gehiagoren haurdunaldien kasuak **arriku-erditzetat** hartzen dira; hortaz, halakoetan ere ezingo litzateke uretan erditu. “Horrez guztiaz gain, lehenik eta behin, emakumea ondo informatuta egon behar da. Eta aukera guztiak aztertuta erabat kontzientziatuta egon behar da”, gehitu du Rodriguezek.

Arriku-erditze: *Parto de riesgo.*

Emagin: *Comadrona.*

Gainbegirale: *Supervisor/a.*

Grabitatea: *Gravedad.*

Tina: *Tina, tinaja.*

Uzkurdura: *Contracción.*

GAIXOTASUNA GIZARTERATU, GAIXOEI LAGUNTZEKO



ESKLEROSI ANIZKOITZA NERBIO SISTEMA ZENTRALAREN GAIXOTASUN BAT DA. BIZI KALITATEA MUGATZEN DUEN GAIXOTASUN KRONIKOA DA, HORREGATIK, GIZARTEAN ERAGIN HANDIA DAUKA. ESKLEROSI ANIZKOITZAREN FUNDAZIOAK GAIXOTASUNA GIZARTERATZEN EGITEN DU LAN, ETA BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK BILATZEN DITU GAIXOEN ONGIZATERAKO. FUNDAZIOAK BILBON DAUKA EGOITZA, BIZKAIKO ELKARTEAK DUEN LEKU BEREAN. GIPIZKOAKO ELKARTEA DONOSTIAN DAGO (ADEMGI) ETA ARABAKO GASTEIZEN (AEMAR).

Marta Fernandez Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioko komunikazio zuzendariak eta Mikel Antizar komunikazio taldeko kideak azaldu digute Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioak eta elkarteek egiten duten lana. 1984an Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte sortu zuten (ADEMBI), eta Euskal Herriko lehenengo elkarte izan zen hura. Boluntarioekin lan handia egin ondoren elkarte profesionalizatu egin zuten. 2000. urtean elkartearen lokala estreinatu zuten Billboko Ibarrekolanda kalean; Eugenia Epalza izena du. Orduan, 2 langile izatetik 16 izatera pasa ziren. 2001. urtean, ostera, fundazioa sortu zuten EAeko hiru lurraldeetan lan egiteko. Gainera, 2011ko martxoaren 28an Urizartorre egoitza inauguratu zuten. Bizkaiko Diputazioarena da egoitza, baina ADEMBIk kudeatzen du. Menpekotasun maila altua duten 16

paziente daude han.

Fundazioaren helburua da gaixotasuna ezagutzera ematea eta behar diren baliabideak lortzea hiru lurraldeetako elkarteek behar bezalako zerbitzuak eskaini ahal izateko. “Lortzen dugun dirua elkartei ematen diegu eurek atentzio zuzena eskaini dezaten”, azaldu du Marta Fernandezek.

Fundazioak hasierako filosofia berarekin jarraitzen du: “Uste dugu ezin dela diru publikotik bakarrik bizi. Uste dugu gizartearen laguntza ezinbestekoa dela, eta, horregatik, lan asko egiten dugu sentsibilizazio sozialaren arloan”, dio Fernandezek. Hitzaldiak, kanpainak, txapelketak... denetarik antolatzen dute.

GAIXOTASUN KRONIKOA DA

Gaur egun, oraindik ere gaixotasun nahiko arraroa da esklerosi anizkoitza, baina orain dela urte batzuk

ESKLEROSI ANIZKOITZEAN

nerbio sistema zentrala babesten duen mielina galdu egiten da; hala, bulkada elektrikoak zerebrotik eta zerebrora bideratzeko nerbioen gaitasuna galdu eta eten egiten da.

oso gaixotasun arraroa zen. “Urte gutxitan presentzia sozial handia izatea lortu dugu”, diote komunikazioan lan egiten dutenek. Esklerosi anizkoitza edo plaka gisako esklerosia nerbio sistema zentralaren gaixotasuna da. Esklerosi anizkoitzean nerbio sistema zentrala babesten duen mielina galdu egiten da; hala, bulkada elektrikoak zerebrotik eta zerebrora bideratzeko nerbioen gaitasuna galdu eta eten egiten da. Zorionez, mielinaren lesioa itzulgarria izaten da kasu askotan. Pertsona heldu gazteen arteko gaixotasun neurologikorik ohikoena da, eta 18 eta 35 urte bitartean diagnostikatu ohi da. Bizi kalitatea mugatzen duten ondorioak ekar ditzakeen gaixotasun kronikoa da; horregatik, gizartean eragin handia dauka. Emakumezkoiei eragiten die gizonetzkoiei baino gehiago. Sintomarik ohikoena honako hauek dira: ahuldadea, inurridura, koordinazio txikia, nekea, oreka arazoak, ikusmen alterazioak eta dardarak, besteak beste. Azken urteotan egin diren ikerketen ondorioz tratamendu berriak daude, eta horiek gaixotasunaren bilakaera geratu dute paziente askorengan.

EZARRITAKO PROTOKOLOA

EAEn 2.200 pertsona inguru daude gaixotasunarekin; horietatik 1.200 Bizkaian daude. Esan behar da Bizkaia dela elkartekide gehien dituen lurraldea (ehunekoetan). 1.200 gaixo horietatik 800 inguru elkarteko bazkide dira. Gaixo bat elkartera joaten denean protokolo hau ezartzen dute: Arrate Jauregik, zerbitzuetako zuzendari eta psikologoak elkarrizketa pertsonalizatua izaten du pazientearekin. Pazienteari bere behar eta kezken araberrako informazioa ematen diote, eta elkartearen eskaintzen dituzten zerbitzuen berri ere ematen diote. “Bestalde, gaixotasunaren beraren gaineko informazioa ere ematen da; hori da gehien eskatzen digutena, eta hori da lehenengo egiten duguna”, gaineratu du Antizarrek. “Pazienteak zerbitzuak jaso nahi baditu, balorazio bat egiten diogu eta bere beharrak zeintzuk diren aztertzen ditugu”, gehitu du Fernandezek.

TEKNOLOGIA BERRIAK TERAPIAREN ZERBITZURA

Fundazioan, Bizkaiko Elkartearen eta Urizartorreko egoitzan 47 profesional daude lanean: psikologoak, logopedak, neuropsikologoak, terapeutas, fisioterapeutas, yoga eta taichi irakasleak, animatzaile soziokulturalak, laguntzaileak... ia denek zuzeneko laguntza lan egiten dute. Askok dira egiten dituzten aktibitateak: fisioterapia, eskulana, igerilekura joaten dira, zaldia-rekin terapia, egokitutako oporrak... Azkenaldian, gainera, teknologia berriak osasunaren zerbitzura jarri dituzte: “Gure filosofia eta estrategiaren barruan dago berrikuntza. Teknologia berriak osasunaren arloan aprobetxatu behar ditugu”. Virtualware enpresarekin batera hainbat tresna sortu dituzte. “Esklerosi anizkoitza duten gaixoen-tzat Europako lehenengo errehabilitazio gela sortu dugu, EMLabs virtual games izenekoa”, azaldu du pozik Fernandezek. Arrakasta handia izan du sistemak. Hein handi batean, arrakasta hori elkarlanaren ondorioa da. Hau da, teknologoek terapeuta eta neurologoekin batera garatu dute produktua. “Gauza batek ez du bestea kentzen. Fisioterapia tradizionala jasotzen dute eta horri gehitzen diogu teknologia berrien laguntza”, gaineratu dute. “Errehabilitazio neurokognitiboa ere egiten dugu. Ariketak pantaila bidez egiten dituzte, eta egunero-koan egin dezaketen hainbat jarraibide ere pantailen bidez erakusten diegu: adibidez, metroko txartelak

nola atera. Hori NeuronUP plataformaren bitartez egiten da”, azaldu du Antizarrek. Errehabilitazioaz gain, tratamendu farmakologikoa ere izaten dute gaixoek.

Elkarlanarekin jarraituz, esan behar da Fundazioak harreman zuzena duela Euskadin neurologian erreferente den Alfredo Antigüedad Basurtuko neurologoarekin eta Mar Mendibe Gurutzetako neurologoarekin. “Euren laguntza dugu eta hori luxua da”, diote. Gainera, familia medikuarekin elkarlanean egiten dute lan, Bilbao Protokoloaren barruan, gaixotasuna azkar diagnostikatzeko. Diagnostikoa neurologo batek egiten du, batez ere erresonantzia magnetikoaren bitartez.

“Esklerosi anizkoitza duten gaixoen-tzat Europako lehenengo errehabilitazio gela sortu dugu, EMLabs virtual games izenekoa”.

EGITEN DITUZTEN KANPAINAK

Fundazioak lan handia egiten du gaixotasuna gizarteratzen. Hala, urtean zehar kanpaina asko egiten dituzte; guztietan ezagunena uztaileko bigarren domekan egiten duten Busti zaitez! kanpaina da. Horrez gain, afari solidarioa, golf txapelketak, jardunaldi zientifikoak, Euskolabelen pintxoak, Kosta trail lasterketa... Gabonetako kanpainaren



barruan Bilketa solidarioa izeneko kanpaina egiten dabilta. Euro baten truke oparia biltzen dizute Forum Sport dendetan. Fundazioak boluntario talde zehatz bat du, 30 lagunekoa, eta ekintza puntualetan boluntario gehiago gehitzen zaizkie. Hala ere, gustura hartuko lukete boluntario gehiago!

ERREHABILITAZIO NEUROKOGNITIBOA

Ariketak pantaila bidez egiten dituzte, eta egunero-koan egin dezaketen hainbat jarraibide ere pantailen bidez erakusten diegu.

EUGENIA EPALZA ESKLEROSI ANIZKOITZAREN FUNDAZIOA

Ibarrekolanda, 17
48015 Bilbo

Telefonoa: 94 476 51 38/ 605 710 389

www.emfundazioa.org/

facebook: FundacionVascaEM

Twitter: @emfundazioa

LA IMPORTANCIA DE LA SENSIBILIZACIÓN SOCIAL

La Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkaia, ADEMBI, creó la Fundación Vasca Eugenia Epalza en el año 2001, para aunar las fuerzas del colectivo y trabajar en toda la CAV, promoviendo el conocimiento, la sensibilización social y el interés por esta enfermedad. El 28 de marzo de 2011 se inauguró la residencia Urizartorre, que dispone de 16 plazas ocupadas por personas con un gran nivel de dependencia. La Esclerosis Múltiple es una enfermedad del sistema nervioso central. Es la enfermedad neurológica más frecuente entre adultos jóvenes, que se diagnostica habitualmente entre los 18 y 35 años. Es una enfermedad crónica, que puede dar lugar a secuelas que limitan la calidad de vida por lo que tiene un gran impacto social. Para dar a conocer la enfermedad y recaudar fondos a favor de la enfermedad, la Fundación organiza varias campañas: la más conocida es la campaña *Mójate!* que celebran el segundo domingo de julio. En estos días, están inmersos en la campaña *Envoltorio solidario* que hacen en colaboración con Forum Sport, a cambio de un euro envuelven el regalo en papel de Navidad.



ARTIUM MUSEO ETA EKINTZA GUNEA

ADIERAZPIDE GARAIKIDEAREKIN KONTZIENTZIA KRITIKOA BULTZATZEKO TRESNA

ARTIUM ARTE GARAIKIDEKO MUSEO ETA EKINTZA GUNEA 10 URTE BETE DITU AURTEN. ERAIKIN BEREZI BATEAN KOKATUTA DAGO, GASTEIZKO ALDE ZAHARRAREN ALBOAN, ETA BARRUKO ARETO GEHIENAK IZEN BEREKO PLAZAREN AZPIAN KOKATUTA DAUDE. MUSEO HAU EGITEKO ARRAZOI NAGUSIETAKO BAT IZAN ZEN ARABAKO ARTE EDER MUSEOAN ARTE GARAIKIDEKO 1.500 PIEZA ZITUZTELA, ETA PIEZEK BALIO EKONOMIKO ETA ARTISTIKO HANDIA IZAN ARREN EZIN ZITUELA ONDO GORDE EZTA ERAKUTSI ERE. HORRI GUZTIARI ERABILERA DUINA EMAN ETA ARTE GARAIKIDEKO ADIERAZPIDE GUNE EGOKI BAT IZATEA NAHI ZUTEN, BAITA LORTU ERE.

Artium Arte Garaikideko museo eta ekintza gunea Gasteizko erdialdean kokatuta dago, Frantzia kalean, Alde Zaharraren parean. Bertako bilduma zabalaren oinarria eta jatorria 70eko hamarkadari dagokio. Garai hartan Arabako Aldundia arte garaikidearen lehen mailako artisten lan asko erosten hasi zen (Picasso, Miro, Tapies...). Lan horiek guztiak Arabako Arte Eder Museora eramaten hasi ziren, eta han kostunbrismo, barroko, gotiko eta bestelako estilotako lanekin batera jarri zituzten ikusgai. “Baina ez zegoen guztirako lekurik; ezin zen ganoraz erakutsi ezta gorde ere. Bildumak bizirauteko beste gune bat aurkitzea ezinbestekoa zen”, kontatu digu luzaroan Arabako Arte Eder Museoan lan egin zuen eta gaur egun Artiumeko zuzendari den Daniel Castillejok. 80ko hamarkadan hasi ziren horretan pentsatzen, baina 1996ra arte ez zen museo berria egiteko benetako pauso finkorik eman.

“Bilduma zabalaren oinarria 70eko hamarkadari dagokio. Garai hartan Arabako Aldundia arte garaikidearen lehen mailako artisten lan asko erosten hasi zen”.

MUSEO ETA EKINTZA GUNE

Azkenean, erakundeak lanean jarri eta Gasteizko autobus geltokia zegoen leku berean museo eta ekintza gune berritzailea eraiki zuten, 2002an inauguratu zutena.



“Hasieratik argi genuen ohiko museo bat baino gehiago izan behar zela”, argitu du Castillejok. “Baziren, alde batetik, arte bildumak erakustera mugatzen ziren museoak, eta, beste batetik, ekintza artistikoen guneak, baina ez biak batuko zituenik”.

Horregatik, Artium zabaldu zuten momentutik mota askotako ekimenak antolatu dituzte, hala nola, hitzaldiak, mahai-inguruak, artisten topaketak, film eta doku-

FORMULA BERRITZAILEAK

Hastapenetatik ekintza paraleloak egiteko joera, eta museoaren bilduma oparora erakusteko formula berritzaileek bereizten dute Artium.

mental emanaldiak, dantza, antzerki, musika, performanceak eta bestelako ikuskizun ugari. Horietako asko Artiumen barruan, baina beste asko, ordea, hiri barrenean egiten dira beste eragile batzuekin elkarlanean.

BILDUMA ERAKUSTEKO FORMULA DESBERDINA

Artiumen beste ezaugarri bereizgarri bat da arte bilduma erakusteko erabilitako formula; izan ere, ez di-

DATUA

3.000 pieza

Artium zabaldu orduko 1.500 pieza zituzten, eta gaur egun dagoeneko 3.000 dira.

tuzte artelanak modu iraunkorrean ikusgai izaten: “Gure bildumako piezak tesi eta kontzeptuen arabera multzokatu eta txandatu egiten ditugu urtebeteko iraupena izaten duten erakusketetan; gainera, pieza bera testuinguruaren arabera modu desberdinean uler daiteke”.

Artiumeko eraikina hainbat mailatan banatuta dago, erdigunean dagoen plazaren azpian. Ekintza gune museoaren sarrera nagusia Artiumen aurpegia den eraikinean kokatuta dago, eta hall handi horrek ongietorria egiten dio bisitariari Joan Miroren eta Llorens Artigasen *Mural de cerámica* eta Javier Perezen *Un pedazo de cielo cristalizado* artelan erraldoiek lagunduta.

Sarreratik behera eginda erdiguneko plazaren azpian bi erakusketa gune erraldoi daude: Iparreko Aretoa eta Hegoaldeko Aretoa, hurrenez hurren, 1.474 eta 1.358 metro koadro dituztenak.

Eraikin nagusiarekiko plazaren beste aldean bi erakusketa areto batzen dituen beste eraikin bat dago: Ekialde Behekoa, 611 metro koadrokoa, eta Ekialde Goikoa, 406 metro koadrokoa daude bertan.

ARTE GARAIKIDEKO BILDUMA GARRANTZITSUENETAKOA

Bilduma ikaragarria da Arte Eder Museoa artelanak biltzen hasi zirenetik batu dutena. Zehazki, Artium zabaldu orduko 1.500 pieza zituzten, eta, gaur egun, dagoeneko 3.000 dira. Horien artean margolanak, eskulturak, grabatuak, marrazkiak, argazkiak eta instalazioak daude. Arte garaikideko funts horren pieza zaharrenak 20ko eta 30eko hamarkadetakoak dira, eta hortik abiatuta gaur egu-

DATUA

%10 ikasleak

Bisitariatik %92 inguru estatukoak eta %8tik gora, atzeritarrek.

nera artekoak ere badaude. Artista ezagunen artean honako hauek nabarmentzen dira: Salvador Dali, Pablo Picasso, Joan Miro, Jose Caballero..., lehen abangoardiakoak; Antoni Clave edo Antonio Saura, Espainiako Berrikuntza garaikoak; ondorengo belaunaldietako Antoni Tapies, Rafael Canogar, Pablo Palazuelo, Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida; eta gaur egungoak diren Txomin Badiola, Dario Urzay, Miquel Barcelo eta Elena del Rivero, besteak beste. Bestalde, 2006an nazioarteko artelanen lerro bat hasi zuten, eta horien artean Bill Viola eta Fabian Marcaccio dira adierazgarrienak.

HEZKUNTZA, LEHENTASUNA

Artiumek mota askotako bisitariak ditu. Horietatik %55 inguru gasteiztarrek edo arabarrak dira; %35 gutxi gorabehera bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta espainiarrek osatzen dute eta; eta %8tik gora atzeritarrek.

Eta horien guztien artean, %10 inguru ikasleak dira. Daniel Castillejo zuzendariaren esanetan, Artiumek ez dauka urtean 12.000 ikasle baino gehiago hartzeko gaitasuna, eta kopuru horretan jarri dute muga. “Horregatik, eta hezkuntza lana Artiumen zutabee-tako bat delako, aspalditik joaten gara eskoletara ikasleei bere kokagunean arte garaikidea ulertzen laguntzera, bai eta irakasleei prestakuntza ematera ere. Artiumen benetako iraultza gertatu zen diktadura eta pedagogia departamentuak zabaldu zirenean”, laburtu du Castillejok.

10 URTE, MUGARRIA

Artiumek Gasteizen eta Euskal He-

“Artium ez da bakarrik museo eta ekintza gunea, Euskal Herrira begira dagoen kultura proiektu estrategikoa baizik. Manifestazio garaikide guztien bitartez ingurunean eragiten eta kontzientzia kritikoa bultzatzen saiatzen gara”.

rrian ondo errotuta dagoela erakutsi du, eta krisiaren aurrean bizi-rauteaz gain, bere hastapenetako helburua berrituta lanean gogor jarraitzeko asmoa dauka. “Artium ez da bakarrik museo eta ekintza gunea, Euskal Herrira begira dagoen kultura proiektu estrategikoa baizik. Manifestazio garaikide guztien bitartez ingurunean eragiten eta kontzientzia kritikoa bultzatzen saiatzen gara. Horrekin batera, kudeaketa plan berri bat gauzatzen ari gara gizarteak Artiumen esku-hartze handiagoa izan dezan”.

BEHIN-BEHINEKO ERAKUSKETAK

Artiumek daukan bilduma erraldoiarekin lotutako erakusketez gain, behin-behineko erakusketa asko egiten dituzte. Halakoetan lehentasuna izaten dute artista arabar, euskaldun zein espainiarrek. Baina, tarteka, nazioarteko artisten erakusketak ere izan ohi dituzte.

ARTEAREN PROZESUA, PRAXIS-EN BITARTEZ


Gasteizko museo eta ekintza guneak sortu duen espazio berri bat Praxis da. Espazio hori DIY (Do It Yourself) delakoaren kulturarekin lotuta dago, eta laborategi edo lantegi esperimentalak izan nahi du dinamikoa eta artelanen osagarria. Ia urtebete daraman ekimen honetan hainbat artistak txandaka jendaurrean lan egiteko konpromisoa hartzen dute eta ikusleek emandako proposamenak kontuan hartzen dituzte, elkarri eraginda.

Informazio gehiago: www.artium.org

**MAILATAN BANATUTAKO ERAIKINA**

Autobus geltoki nagusia zegoen leku berean inauguratu zuten 2002an museo eta ekintza gune berritzailea. Hainbat mailatan banatuta dago eraikina.

URTEURRENAREN 'HARITIK TIRAKA', ARTEARI ETA BILDUMARI BURUZKO HAUSNARKETA SAKONA



Artiumek 10 urte bete dituela-eta, erakusketa eskaintza oso berezia antolatu dute, 2013ko lehen hilabeteetan ere ikusi ahal izango dena. Berezia da bilduma propioa erakusteko aukeratutako testuinguru eta aurkezpen irudimentsuagatik, eta, era berean, urte hauetan guztietan lehenengo aldia delako museoko areto guztiak Artiumeko bildumaren piezekin bete dituztela. Jorge Oteiza zenaren *Homenaje a Velazquez* artelan esanguratsutik abiatuta hiru erakusketa desberdin sortu dituzte bertan ikusgai daudenak: *Atrakzioen Muntaketa*, *Ispilu Irudia* eta *Erraiezko Arima*. Hiru horietako bakoitzak artearen galdera unibertsaleko bat plazaratzen du. *Atrakzioen Muntaketa* kutsu eta lengoai zinematografikoa erabilita munduaz eta kanpoko eremuaz mintzatzen da; *Erraiezko Arima*-k pertsonari begiratzen dio, norberak itomenetik azalpen bila edo transzendeziatik egiten dituen galderen bidez; eta, azkenik, *Ispilu Irudia*-k arteari berari erreparatzen dio, arteak bere burua analizatzeko duen beharraz.

Haritik Tiraka erakusketak bilduma oso garrantzitsu batez baliatuz prozesu artistikoaren eta artearen helburua den harkiko hurbilketa anitza eta aberatsa eskaintzen du.



ARTIUM CENTRO-MUSEO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

El Centro-Museo de Arte Contemporáneo Artium está celebrando su décimo aniversario. Artium es un centro moderno, activo e innovador con una colección de Arte Moderno de gran valor que ha marcado un estilo de mostrar y apoyar el patrimonio. De hecho, Artium abrió sus puertas en 2002 con un fondo de 1.500 piezas, ya que esta infraestructura activa surgió tanto para fomentar la expresión de Arte Moderno en todas sus disciplinas, así como, para albergar en las mejores condiciones posibles una colección de incalculable valor artístico que se estaba apilando en el Museo de Bellas Artes de Gasteiz.

Una abrumadora colección privada que es mostrada progresivamente y en contextos y temáticas muy concretas; del mismo modo, se presenta como espacio para diversas exposiciones temporales de excelentes artistas locales y foráneos.

Tirar del Hilo, es una completísima exposición múltiple que con la excusa del 10 aniversario de Artium, analiza el arte desde sus principales prismas y a través de dicho recorrido, ofrece la posibilidad de disfrutar de un sinfín de obras artísticas.



OLAGIBEL OSASUN-ZENTROA

36.000 PERTSONARI ARRETA EMATEN DIEN ANBULATORIO ERREFERENTZIALA

OLAGIBEL OSASUN-ZENTROA OSO EZAGUNA DA GASTEIZEN. 60KO HAMARKADAN ZABALDU ZUTEN ETA HIRIBURUKO ESPEZIALITATEEN LEHEN ZENTROA IZAN ZEN. GERORA, LEHEN MAILAKO ARRETA ERE GEHITU ZUTEN, ETA GASTEIZKO ERDIGUNEAN, SANTA LUZIA AUZOAN ETA GASTEIZ INGURUKO HERRI ASKOTAN EMATEN DIETE ZERBITZUA; GUZTIRA 36.000 PERTSONARI. IZEN OFIZIALA NUESTRA SEÑORA DE ESTIBALIZ BADA ERE, OLAGIBEL ANBULATORIOA IZENAGATIK DA EZAGUNA.

Espezialitateekin lan egiteko martxan jarri zuten sei solairuko osasun-zentroak ibilbide luzea du eta gasteiztar askorentzat erreferentzia da. **Aspaldidanik** lehen mailako arreta da beraien lehenetsuna, eta horretan dihardute lanean 80 profesionalak. Horrez gain, baina, erradiografiak eta laborategi lanak egiten dituzte, eta zenbait espezialitate dituzte: oftalmologia, dermatologia, traumatologia, urologia, neurokirurgia, ginekologia, otorrino eta emaginak. Horiek guztiak batuta, 100 langile baino gehiago daude zentroan.

Lehen mailako arreta astelohenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara ematen badute ere, asteburuetan zentroan bertan Etengabeko Arreta Gunea egoten da zabalik 09:00etatik gaueko 12:00e-

tara, **muturrekoak** ez diren larrialdiak artatzeko.

Olagibelen zerbitzu propioa ez bada ere, eraikinean bertan kokatuta dago Araba osoan lan egiten duen Eskolako Osasun Programa. Horren bitartez, hainbat erizainek eskolatan prebentzio eta osasunaren zabalkundea lantzen dute.

EUSKARAREN ESKAERA TXIKIA HANDITZEN

Olagibelek, bai administrazioan, bai medikuntza alorrean euskarazko zerbitzua bermatuta du, baina onartzen dute eskaera oraindik ere txikia dela, nahiz eta poliki-poliki handitzen doan.

Lehen mailako arretako zuzendari Adolfo Delgadok jakinarazi digu Osa-

LAN-TALDE HANDIA

Lehen mailako arretako zuzendari Adolfo Delgadok -ezkerretik lehena- 80 profesionalen ardura du.

kidetzaren joera dela espezialitateak ospitaleetara eramatea; eta hala egiten bada, lehen mailako arreta emateko leku irabaziko dutela.

BLOGA ABIAN DUTE

Olagibeleko lantaldeak teknologia berriak erabili nahi ditu osasun-zentro barruko zein kanpoko harremanak sendotzeko. Horretarako, abian jarri dute www.anbulatoriodeolaguibel.org bloga; eta ume txikiak dituzten gurasoei zuzendutako www.pediaguibel.wordpress.com ere bai. Aipatzekoa da oso gutxi direla blog propioak dituzten osasun zentroak.

PREBENTZIOA GIZARTEAN LANTZEA

Delgadok azaldutakoaren arabera, Olagibel Anbulatorioaren **erronka** nagusia komunitatean gizarteratzea da. Horretarako, anbulatoriotik irten eta gizartean gehiago eragin behar dute. "Herriarrak gaixorik daudenean guregana etorri aurretik, gizartean prebentzioa landu behar dugu gizarteari osasuna emateko, hau da, pertsonen osasunera begiratzeaz gain, pertsonen osasun beharrei arreta jarri".

Olagibelek Gasteizko beste osasun-zentro eta ospitaleekin oso harreman ona du, baina koordinazio zein integrazio prozesuak gehiago landu nahi ditu. **Bitxikeria** moduan, hainbat gasteiztar zein kanpotarrek Olagibel eta alboan dagoen Santiago Ospitalea nahastu egiten dituzte.

“Gizartean prebentzioa landu behar dugu gizarteari osasuna emateko, hau da, pertsonen osasunera begiratzeaz gain, pertsonen osasun beharrei arreta jarri”.

Aspaldidanik: *Desde hace tiempo.*

Bitxikeria: *Curiosidad, peculiaridad*

Erronka: *: Reto*

Lehen mailako arreta: *Atención primaria*

Muturreko: *Extremo, límite*



**“EUSKALDUNOK
SERIOAK BAINA
ZINTZOAK GARA”**

URKO ARISTI

NAFARROAKO ARRIBE HERRI TXIKIKOA DA URKO ARISTI KAZETARIA. EGURALDI MUTIL MODUAN EGIN DA EZAGUN, BAINA EGURALDIAZ GAIN BESTE HAINBAT SAIO ERE EGIN DITU ETB-N: IRUÑEKO BERRIEMAILA *TELEBERRI-N*, *BI ERREPIDEAN*, *ARRATSALDERO*, ETA AZKENA, *BIZIRIK*. TELEBISTAKO AURPEGI EZAGUNA IZATEAREN ALDE ONAK ETA TXARRAK ZEINTZUK DIREN AZALDU DIZKIGU ARISTIK, ETA, NOLA EZ, EGURALDIAZ ERE GALDETU DIOGU.

EGURALDIA

Urko Aristik eguraldiaren berri ematen digu egunero ETBn.

***Bizirik* saioarekin ibili zara azkenaldian. Gustura?**

Oso gustura. Ni, gainera, herri txiki batekoa naiz, Arribekoa. Orduan, oso identifikatuta sentitu naiz herri horietan gertatzen diren istorioekin; gainera, saioaren politena herrigintzan lan egiten dutenak omentzea izan da. Bide batez, ondoan ditugun eta ezagutzen ez ditugun herriak ezagutzeko balio izan du saioak. Lastima, herri bakoitzean herriko jendearekin egoteko nahi adina denbora ez izatea.

Euskal Herria ezagutzeko aukera izan duzu. Nolakoak gara euskaldunak?

Beti esaten da itxiak garela, batez ere, euskal hiztunak. Uste dut topiko hori gainditzen hasi behar dugula. Ez gara berehala zabaltzen, telebista dator eta bote lasterrean ez gara hasten. Gu serio samarrak gara, baina zintzoak.

Herrien artean ezberdintasunak ikusi dituzu?

Bai, adibidez, Bizkaiko kostaldean ibili garenean kostaldeko kresal hori nabaritu izan dugu. Jendea lotsagabeagoa da; eta, Iparraldean, beharbada, motelagoak, ez zentzu txarrean, izan ere, niri asko gustatzen zait iparraldekoen erritmo eta *tempo* hori. Nik uste dut asko baldintzatzen duela non bizi zaren: adibidez, Kanpezun esaten ziguten eurak mugan bizi izan direla, **pasabidean**. Hortaz, horrek baldintzatzen du herriaren izaera eta herriaren itxura. Hori, era berean, aberatsa da: izaeran dituzun **ñabardurak** zure herriak eman dizkizu, eta horrek berezi egiten zaitu.

Eguraldiagatik zara ezagun. Gogorra da titulu hori eramatea?

Beti diot eguraldiarekin maitasun harreman guztietan bezala, momentu gaziak eta gozoak izan ditudala. Maitasunetik gorrotora ere pasa izan naiz. Nik hasieran eguraldiari buruz ezer ez nekien, orain pixka bat ikasi dut, baina hasieran ia ezer ez nekien. Hortaz, ez nintzen gustura sentitzen, baina ezagutu ahala trukua hartu eta gustua hartzen hasi nintzaion.



Gainera, eguraldiak eragin handia du osasunean.

Bai, bideo bat egin dugu non mediku batek aipatzen duen hego haizeak guregan duen eragina. Aipatzen du estatuko hegoaldean bizi direnek jasaten dutela hego haizea gehien, eta estatuko zoro kopuru handiena hego aldean dagoela. Egunero-egunero hego haizea **pairatu** behar baduzu zure gorputzak erantzun bat eman dezake; eta eguzkia ikusi barik egun askotan baldin bagaude, ba, energia falta hori ere nabaritzen da... aztertzeke moduko gai polita da. Beti esaten da jendeak gerrian edo belaunean nabaritzen dituela eguraldi aldaketak. Eguraldia natura da, eta gu ere naturaren parte garen heinean, ba, badu eragina. Loreak zergatik **lortzen** dira? Ba, gu ere antzera.

“Eguraldia natura da eta, gu ere naturaren parte garenez, guregan eragina du”.

Euskara aberatsa erakusten duzu, atsotitz eta esamoldeak erabiliz.

Horren arrazoia da ni erosoago sentitzen naizela euskaraz, nire ama hizkuntza delako. Gazteleraz dudak arazoa izaten da nik euskaraz pentsatzen dudala eta **euskarakadak** botatzen ditudala. Baina hori ere aldarrikatu nahi dut: euskaraz trakets aritzea barkatzen dugu, baina gazteleraz trakets ezin dugu egin, badirudi disimulatu egin behar dugula euskaldunak garelara. Eta alderantziz, ez da horrela gertatzen. Niri etsigarria iruditzen zait kalean galdetzen didatenean: “Oso ondo egiten duzu, baina zer da amaieran esaten duzun hori: txantxibiri tan tan”? Eta kontua da nik amaieran esaten dudala “Txintxo ibili eta ondo izan”. Niri hasieran barregura ematen zidan, baina gero konturatzen zara ze ezagutza falta dagoen euskal eta erdal munduen artean, “ondo izan” eta “txintxo ibili” hain arrotz egiteko.

Esamolde horiek etxean jasotakoak dira?

Gehienak etxean jasotakoak dira. Adibidez, agur hori gure

KAZETARIA

Kaleko kazetaritza du gustuko Aristik. Eroso sentitzen da jendearekin hitz egiten.

amonak horrela agurtzen ninduelako esaten dut, berari egindako keinu bat da. Badago sekulako aberastasuna euskaraz, eta iruditzen zait horretan Pello Zabalak sekulako lana egin duela horiek jasotzen eta biltzen. Telebista publiko bat garen heinean, konpromiso handiagoa izan behar dugu bilketa lan horretan eta hori zabaltzen.

“Gazteleraz trakets ezin da egin, badi-rudi disimulatu egin behar dugula euskaldunak garelara”.

Zer eman dizu kazetaritzak?

Jende eta toki asko ezagutzeko aukera. *Bi errepedean* saioan egun bat egin nuen itsasontzi batean sartuta, eta, seguru nago lanagatik ez balitz ez nukeela inoiz hori biziko, edo zenbait tokitara ez nintzatekeela inoiz joango, edo zenbait jende ez zidakeela euren sukaldean sartzen utziko. Balio izan dit pertsonalki aberasteko. Jendeak esaten dizunean: “Hara, gure Urko”, ba, barruan halako zerbait sentitzen da...



Etsigarri: *Desesperante.*
Euskarakada: *Vasquismo.*
Kresal: *Salitre.*
Loratu: *Floreceer.*
Ñabardura: *Rasgos, matices.*
Pairatu: *Padecer, sufrir.*
Pasabide: *Zona de paso.*

LIBERAZIOA: LAN HANDIA BAINA ESPERIENTZIA ONA

OSAKIDETZAKO LANGILEEK EUSKARA IKASI ETA HOBETZEKO AHALEGIN ETA FRUITUAK



OSAKIDETZAKO LANGILE ASKOK EUSKARA IKASI EDO HOBETZEKO AHALEGIN **SUTSUA** EGITEN DUTE URTERO. ESPERIENTZIA HORI BERE HORRETAN EZAGUTU ETA PROTAGONISTEN AHOTSA ENTZUN NAHI IZAN DUGU. IKASTEKO PAUSOA EMATEN DUTEN LANGILE HORIEN MOTIBAZIOAK, **AHULEZIAK, LORPENAK, ESPERIENTZIAK...** EZAGUTZEKO, BERAINGANA JO ETA AHOTSA EMAN DIEGU. AHALEGINA EZ DA TXIKIA, BAINA LORTUTAKO ASKO DA. HALA KONTATU DIGUTE ZORTZI EGUNEZ ILAZKI EUSKALTEGIAN JARDUN DUTEN ZORTZI LAGUNEK.

TALDEA

Monika, Olga, Itziar, Patxi, Miriam, Daniela, Mertxe eta Oskar. Ilazki euskaltegiko ikasgelan lanean. 2012ko otsailetik ekainera arteko taldea.

Aurten, aurreko urteetan bezala, Osakidetza hainbat langile liberatu ditu euskara ikasteko edo beren maila hobetzeko. Horietako talde batek bere esperientzia kontatu digu. Erizain, administrari laguntzaile eta erizain laguntzailez osaturiko talde honek aitortu digu, azken urteetan euskararen presentzia **areagotzeak**, bai giza harremanetan bai instituzioekiko harremanetan, euskara maila hobetzera bultzatu dituela eta Osakidetza eskaintzen duen aukera baliatzea erabaki dutela. Ahalegina ez da **makala**, egunero bost ordu pasatzen dituzte elkarrekin lokailu, baldintza eta ariketa artean, eta ondoren, etxean,

irakurri, irratia entzun eta ikasi; hau da, beraien hitzetan, "euskaraz bizitzen saiatzen gara".

Zergatik eskatu zenuen liberazioa, Mertxe?

Zorretan neukan kontua zen. Ni herri euskaldun batean bizi naiz, nire seme-alabak euskaldunak dira, nire familia guztia ere euskalduna da eta nire lantokian gaur egun euskaraz aritzea beharrezkoa da, bai lankideekin, bai gaixoeekin harremanak izateko.

Miriam, zer dela-eta matrikulatu zinen euskaltegian Madriletik eto-

ri baino lehen?

Hona bizitzera etortzea erabaki nuenean, argi eta garbi neukan: Euskadira bizitzera etortzen banintzen, hemengo hizkuntza ikasiko nuen.

Eta gaur egun, erabakiarekin oso pozik nago. Batez ere, euskarak harremanak egiteko balio izan zidan. Gainera, garai hartan, hemen ez neukan lagunik, ezta lanik ere, eta familia Madrilen geratu zen. Beraz, euskara nire euskarria izan zen.

Aizu, Monika, gure adina ez al da oztopo handia hizkuntza berria ikasteko?



“Ahalegina ez da makala, egunero bost ordu pasatzen dituzte elkarrekin lokailu, baldintza eta ariketa artean”.

Bai, oztopo handia izan da. Ni, gainera, urte asko egon naiz euskararekin kontakturik izan gabe; nekien apurra gogoratzea erraza izan da, baina gauza berriak ikastea zaila izaten ari da.

Zuk, Patxi, ingelesa badakizu. Euskara zailagoa iruditzen al zaizu? Ingelesa jakiteak euskara ikasteko laguntza edo erraztasuna ematen dizu?

Nik ingelesez “just a little bit” (justu pixka bat) dakit eta, egia esateko, niretzat ingelesa euskara baino askoz errazagoa da. Beste aldetik, ingelesa jakitea ez da euskara ikasteko abantaila, oso hizkuntza desberdinak direlako.

Daniela, euskaltegian oporretan zaudenean lanera joan behar duzu. Han euskaraz arituko zara?

Hori nire helburua da, lan egiten dudan zerbitzuan langile askok normalean euskaraz hitz egiten baitu.

MINTZAPRAKTIKA

Kurtsoan zehar zenbait txango egiten ditugu, ulermena, entzumena edo mintza praktika lantzeko.

“Batzuetan gorabeherak izaten ditugu gure motibazioan, nekatuta edo adorerik gabe ikusten dugu geure burua baina aurrera jarraitzen dugu, jo eta ke lortu arte”.

Nola nabaritzen duzu euskara mai-laren hobekuntza, Oskar?

Nire inguruko jendeak nik baino gehiago nabaritzen du nire hobekuntza. Noizbait iruditu zait atzeraka noiala, ez, txantxetan ari naiz. Erraztasun handiagoarekin irakurtzen dudalako. Egia da nik ere hobekuntza nabaritzen dudala.

Zure ustez, Itziar, zein izan da alde onena eta zein alde txarreana?

Orokorrean, euskaltegian ikastea esperientzia ona da. Alde txarrari dagokienez, niretzat okerrera hitz egiteko orduan lotsa galtzea da. Hala ere, gauza on asko dauzka: ikastolako bileretan itzulpena egin baino lehen ulertzea, edo gauzez lan egin behar ez izatea, besteak beste. Baina, seguruenik, hoberena izango da zailtasunik eta beldurrik gabe euskaraz ondo hitz egitea.

Daniela, zure eguneroko errutina liberazioa bitartean asko aldatu da? Nolakoa da, hobea edo okerragoa?

Noski, lehen, gauzez egiten nuen lan, liberatu eta gero, ordea, egunari etekina ateratzen diot. Beraz, gauk edonork bezala pasatzen ditut lotan, eta liberazioak asko lagundu dit bizitza normala egiten, etxekoekin batera bazkaltzen dut, adibidez.

Talde jatorra daukagu, Olga; horiek horrela, artikulu hau denon

artean idatzi dugu. Kurtsoa bukatu ondoren, ikaskideekin harremana mantenduko duzu euskara praktikatzeko edo beste proiektu batzuk antolatzeko?

Nire asmoa udan zehar harremana mantentzea da, baina egia esan oso zaila izango da, zeren eta bakoitza bere ohiko bizimodura itzuliko baita: bere lana, familia, udako oporrak... Hala ere, denok daukagu besteekin harremanak bideratzeko aukerak.

Ikusten duzueneguz, gogorra da eta gogorra izango da baina merezi du. Noizbehinka, dena uztea eta gure lanera itzultzea eta gure eguneroko errutinara bueltatu nahi genuke. Ez gara hain gazteak, gehienok berrogei urte inguru ditugu, batzuetan gorabeherak izaten ditugu gure motibazioan, nekatuta edo adorerik gabe ikusten dugu geure burua. Hala eta guztiz ere, nahiz eta neurona gehiagoren beharra sumatzen dugun, aurrera jarraitzen dugu, jo eta ke lortu arte. Bihotzez esaten dizuegu: euskara ikasteko aukerarik baduzue, anima zaitetzte!

M. Antolin (Donostia Ospitalea), O. Baro (Donostia Ospitalea), M. Basasoro (Donostia Ospitalea), I. Beltran de Heredia (Bidasoako Ospitalea), O. Guridi (Erreterria-Iztietako Osasun-Zentroa), D. Moreno (Donostia Ospitalea), P. Riezu (Gros Anbulatorioa), M. Toledano (Zumarragako Osasun-Zentroa).


Ahuleziak: Debilidad, flaqueza
Areagotu: Aumentar, intensificar, incrementar.

Bideratu: Dirigir, encauzar, orientar.

Gorabehera: Altibajo, vaivén, alteración

Makal: Débil, flojo

Sutsu: Vivo, impetuoso



JUAN GONDRA REZOLA
Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurtu Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.

1936KO MEDIKUNTZA FAKULTATEA

1936KO URRIAREN 4AN, EUSKO JAURLARITZAK UNIBERTSITATEKO ZENTROAK SORTZEKO AHALMENA BIDERATZEN ZUEN ESTATUTUA ONARTU ZUEN. BOST EGUN GEROAGO, KULTURA SAILAK MEDIKUNTZA FAKULTATEA SORTZEKO BATZORDEA IZENDATU ZUEN. HONAKO HAUEXEK ZIREN BATZORDE HORRETAKO KIDEAK: SENDAGILEEN ELKARTEKO PRESIDENTEA, BASURTU OSPITALEKO ZUZENDARIA ETA JON ARROSPIDE, JUSTO GARATE, IGNACIO ARTECHE, JULIAN GUIMON, JOSE ZINCUNEGUI, WENCESLAO LOPEZ ALBO, RUFINO CASTAÑOS, GONZALO ARANGUREN, LUIS BILBAO ETA MANUEL USANDIZAGA SENDAGILEAK.

Azaroaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, batzorde horretako erabakiak dekretu bidez eman ziren argitara. Azalpenak emateko orduan, Euskal Unibertsitatearen alde lan egin zuten erakundeak eta aurreko euskal **zientzialari** batzuk aipatzen ziren **aurrekari** historikoetan.

Izan ere, gerrak eragindako egoera gogorra hartzen zen kontuan, eta, bertan azaldutakoaren arabera, helburua ez zen unibertsitaterik onena sortzea, geroko Euskal Unibertsitatearen hazia ereitea baino. Era berean, euskararen **agerpenari** ere berebiziko garrantzia

ematen zioten lanbide sanitarioko zereginetan.

Egun batzuk geroago, irakasle lanpostuak **esleitzeko** lehiaketa egin zen. Gerrako egoera berezia kontuan hartuta, urtebeterako baino ez ziren izango, eta esleipenak ez zuten inolako **esumenik** ekarriko hurrengo ikasturteetan. Lanpostu ofizialik ez zutenek zazpi mila eta bostehun pezetako ordainsaria jasoko zuten urtean; eta lanpostu ofiziala zutenek, berriz, bost mila pezetakoa. Dekretuan bertan lehiaketarako epaimahaikideak eta unibertsitate gobernatzeko batzordea izendatu zi-



Medikuntza Fakultateko batzarkidea izan zen Wenceslao Lopez Albo medikua.



Patologia eta Klinika Medikoa, lehenengo maila: Juan Viar.



Ramiro Canivell Morcuende irakaslea, (Kimika Organikoa).



Lehenengo mailako Patologia eta Klinika Kirurgikotako Julian Guimon irakaslea.



Hirugarren mailako Patologia eta Klinika Kirurgikotako Daniel García irakaslea.



Eusebio García Alonso.



Jon Arrospide Basabe.

ren. Azken hori Justizia eta Kulturako sailburuaren ardurapean zegoen, eta gizarteko hainbat ordezkari ere parte hartzen zuten bertan.

HONAKO IRAKASLE HAUEK IZENDATU ZITUZTEN:

- Anatomia, lehenengo maila: Jose Luis Obregon Icaza.
- Anatomia, bigarren maila: Jose Gutierrez Alonso.
- Histologia: Angel Lopez Perez.
- Fisiologia, lehenengo maila: Luis Bilbao Libano.
- Fisiologia, bigarren maila: Santiago Ibarguen Beitia.
- Patologia Orokorra: Justo de Garate.
- Anatomia Patologikoa: Pedro Toledo.
- Patologia Kirurgikoa, lehenengo maila: Julian Guimon.
- Patologia Kirurgikoa, bigarren maila: Abilio Saldaña.
- Patologia Kirurgikoa, hirugarren maila: Francisco Perez Andres.
- Patologia eta Klinika Medikoak, lehenengo maila: Juan Viar.
- Patologia eta Klinika Medikoak, bigarren maila: Ramon Rodriguez de La Mata.
- Patologia eta Klinika Medikoak, hirugarren maila: Cesareo Diaz Emparanza.
- Obstetria: Carlos Mendaza Thomas.
- Pediatria: Julio Laguna.
- Ginekologia: Cesareo Rey Baltar.
- Otorrinolaringologia: Daniel Garcia Hormaeche.
- Dermatologia eta Sifilografia: Jose Salaverrri Aranguren.
- Psikologia Medikoa eta Psikiatria: Rodrigo Gonzalez Pinto.
- Euskara medikoa: Jose Zinzunegi.

PRESTAKUNTZA IKASTAROKO IRAKASLEAK:

Felix Ara (Fisika), Luis Mellado (Anali-si Kimikoak), Ramiro Canivel (Kimika Organikoa), Enrique Belda (Biologiara eta Fisika-Kimikara egokitutako Matematika Aplikatuak), Julio Uruñuela eta Florencio Bustinza (Biologia).

Ikasleek oztupo handiak izan zituzten matrikulak egiteko orduan, gerraren ondorioz oso zaila zelako aurreko ikasketetako agiri akademikoak lortzea. Horretaz aparte, soldadutza egiteko adina zeukaten ikasleak frontera joan behar izan ziren gerragatik.

1936ko abenduaren lean, Agirre lehendakariak hasiera eman zion ikas-turteari.

Hala ere, tropa nazionalak Mola jeneralaren agindupean garatutako Bizkaiko okupazioaren ondorioz, Euskal Herriko Unibertsitateak bertan behera utzi behar izan zuen aurreko hilabetetan hasitako ibilbidea. Areago, unibertsitatean irakasle zeudenek **galbahe** eta eraso zorrotza pairatu behar izan zuten. Fakultatearen amaiera izan zen, baina bere aztarnak finkatuta geratu ziren, eta, hori gutxi balitz, aurrera jarraitzeko erronka geratu zen bertako medikuntzaren barrenetan. Horiek horrela, 1969. urtean, berriro atek zabaldu zituen Medikuntza Fakultateak.



Agur argazkia.




Eusko Jaurlaritzaren bisita.



Basurtuko medikuak.



Goian, Agintaritzaren Buletinean Leizaola-ren sinaduraz aterata zuten agindua. Eskuman, garai hartako lehendakaria zen Jose Antonio Agirrerren Medikuntza Fakultatearen hasieraren agurra eta berrespena: "Eusko Ikastola Nagusi dan egunian biotza poz beterik". Agirre -tar ' lehendakaria.




IKASLEAK ikasgelan 1936 urtean. Argazkia: Danielle Labajos de Bertolin

- Agerpen:** Presencia.
- Aurrekari:** Antecedente.
- Eskumen:** Competencia.
- Esleitu:** Adjudicar.
- Galbahe:** Criba.
- Zientzialari:** Científico.

OINETAKOAK JANTZI ETA KORRIKA EGITERA

URRIAREN 21EAN ENPRESEN ARTEKO LASTERKETA JOKATU ZUTEN



MOMENTU BATEZ OSASUNAREN ETA MEDIKUNTZAREN ARLOKO TRESNAK ALDE BATERA UTZI ETA KORRIKA EGITEKO OINETAKOAK JANTZITA IRTEN ZIREN KALERA OSAKIDETZAKO LANGILEAK. ALAVA EKINEAN EKIMENAREN BARRUAN ANTOLATZEN DEN ENPRESEN ARTEKO LASTERKETA JOKATU ZUTEN URRIAREN 21EAN. OSAKIDETZAK 97 LANGILE ERAMAN ZITUEN LASTERKETARA, ETA EMAITZA BENETAN ONAK LORTU ZITUEN.

Lankideen arteko harremanak indartzeko asmoz hainbat ekimen burutzen dituzte Osakidetzan urtean zehar. Horietako asko kirolaren inguruan antolatzen dituzten ekimenak izaten dira; adibidez, lasterketak. Hain zuzen, urriaren 21ean enpresen arteko lasterketa jokatu zuten Gasteizen, eta Osakidetzako ordezkariak ere han izan ziren. Alava ekinean ekimenaren barruan antolatutako lasterketa da aipatutakoa, eta Ascentium enpresak antolatzen du Gasteiz inguruan antolatzen diren gainerako lasterketen moduan. Enpresa bereko langileen artean lankidetzak eta kiroltasuna sustatzeko helburuarekin antolatzen dute lasterketa.

Enpresen arteko lasterketan edozein enpresak parte har dezake, eta edozein lurraldetakoak; hau da, Gipuzkoa eta Bizkaiko enpresek ere parte har dezakete Gasteizko lasterketan. Parte hartzeko

modu bat baino gehiago dago. Izena taldeka eman behar da, eta taldeak bikoak, hirukoak edo lauhoak izan daitezke. Gainera, taldea gizonezkoa, emakumezkoa edo mistoa izan daiteke. Lasterketaren arau garrantzitsuena da talde bereko korrikalariek elkarrekin egin behar dutela eta batera sartu behar dutela helmugara.

Enpresen arteko lasterketan hainbat sari banatzen dituzte. Horien artean parte-hartzearen saria dago; hau da, korrikalari gehien eramaten dituzten enpresak saritzen dituzte. Aurten 56 enpresak eman dute izena; eta, horien guztien artean Osakidetzak Araba bigarren tokian geratu da: "Guk baino korrikalari gehiago aurkeztu zituen Mercedesek", azaldu du Jose Montero Osakidetzako langileak eta lasterketarako taldeak osatzeko ardua duenak. Osakidetzak 97 langile era-

LASTERKETA.

Enpresen arteko lasterketan berde koloreko kamisetak eraman zituzten Osakidetzako langileek.

man zituen eta Mercedesek, aldiz, 110. Araba Unibertsitate Ospitaleko langileek (Txagorritxu eta Santiago Ospitaleak), zentralako langileek eta eskualdeko langileek osatu zuten Osakidetzak Araba taldea.

“Aurtengo edizioan 56 enpresak parte hartu dute lasterketan”.

31 EMAKUME ETA 56 GIZON

Aurtengoa bederatzigarren edizioa izan da. Orain arte egin diren edizio guztiak kontuan hartuta Osakidetzak aurten eraman ditu langile gehien lasterketara. “Lehenengo aldian 15 lagun joan ginen eta aurten 97”, azaldu du Monterok. Urteik urtera parte hartzaileen kopuruak gora egin du, eta emaitzak ere ez dira edonolakoak izan. Saillapen guztiak kontuan hartuta 10 sari eskuratu dituzte Osakidetzako langileek (18 sari zeuden denera). Era berean, nabarmentzekoa da emakumezkoek egin zuten lana. 31 emakumezko eta 56 gizonezko aurkeztu ziren lasterketara, eta emakumezkoetan ia denek eraman zituzten sariak: “Oso emaitza onak izan dira”, gaineratu du Monterok.

Osakidetzako langileak besteengandik bereizteko, aurten, kamiseta berdinarekin egin dute lasterketa Osakidetzako langile guztiak: “Unibertsitate Ospitalearen bultzada dela-eta Osakidetzak Araba izenarekin egin dugu aurten lasterketa, eta Gasteizko Green Capital delakoaren bultzada aprobetxatu dugu berde kolo-



reko kamisetak eramateko”, azaldu du Monterok.

“Urtetik urtera parte-hartzaileen kopuruak gora egin du; egia da, jendeari tiraka ibili behar zara lasterketan izena eman dezan. Jendeak bestelako konpromisoak izaten ditu aste bukaeretan. Gainera, nahikoa entrenatu ez duten aitzakia erabiltzen dute askok. Hortaz, kosta egiten da jendea animatzea”, dio Monterok. Lasterketaren aurretik aparteko entrenamendurik ez dutela egiten kontatu digu Monterok. Baina, lasterketa baino hilabete lehenago kros bat egiten dute Zabalzana parkean Osakidetzako langileek. “Bi ospitaleetako langileak elkartzen gara; aurten, esaterako, 70 bat lagun elkartu ginen. Lasterketa horrek balio izaten du bakoitzaren maila zein den jakiteko eta taldeak osatzeko”. Hala, enpresen arteko lehiara hobeto prestatuta iristen dira. Aseguru etxe batek babesten du Zabalganako krosa eta jasotako diruarekin sariak eta hamaiketakoa antolatzen dituzte.

Enpresen lasterketaz gain, inguruan antolatzen diren beste proba batzuetara ere joaten dira elkarrekin, baina ez modu ofizialean: “Hau da, enpresen arteko lasterketan parte hartzen dugun lankideen artean asko gara korrika egitea gustuko dugunok. Hala, beste lasterketa batzuetan ere parte hartzen dugu, baina nork

“Osakidetzako langileek kros bat egiten dute Zabalganen lasterketa baino hilabete lehenago”.

bere aldetik egiten du taldea. Egia da, lankideen artean lagunak egiteko balio duen zaletasuna da; azken finean, komunean dugun zaletasuna da. Eta, hori aitzakiatzat hartuta bestelako afari edo bazkariak ere egiten ditugu”, gaineratu du Monterok.

“Lasterketan ateratako argazkiak denen aurrean ikusgai jarri dituzte”.

LANGILEEN ARTEKO HARREMANAK ESTUTU

Aurten, langileez gain, Osakidetzako zuzendariak ere parte hartu du lasterketan; gerenteak beste horrenbeste, eta Txagorritxuko ekonomia arduradunak eta Santiagoko UCiCo arduradunak ere bai. Taldeak egiten dira parte-hartzaileen mailaren arabera eta baita kargu edo **adiskidetasunaren** arabera ere; hau da, maila berekoak bai, baina euren artean taldekideek harremana izatea ere kontuan hartzen du Monterok taldeak osatzerakoan. “Taldea **lehiakor** izateaz gain, batera korrika egiteko gogoia izatea ere kontuan izaten dut”, dio Monterok.

Lasterketa antolatzaiek lan handia duela dio Monterok, baina, era berean, gustuko duela: “Korrika egitea gustatzen zait, eta niri gustatzen zaidana beste batzuekin banatzea gustuko dut”, azaldu du Monterok. Lankide batzuk lasterketa honetan parte hartzen hasi ziren eta **gerora** hartu dute korrika egiteko zaletasuna. Modu horretan langileen arteko

Arrakasta

Parte hartu zuten korrikalariak maila ona erakutsi zuten. Denera 10 sari jaso zituzten.

harremanak estutu egiten direla dio. Aurten, adibidez, lasterketan ateratako argazkien nahasketa bat egin dute, eta denen aurrean **ikusgai** jarri dute: “Azken finean, denoi gustatzen zaigu argazkiak ikustea”, dio Montero antolatzaileak. “Lan handia eskatzen duen arren gustatu egiten zait hau egitea”, gaineratu du. Jose Montero, esaterako, zeladorea da eta lasterketa hau medio mediku gehiagorekin du harremana. “Esan daiteke, hainbeste aldiz kritikatu izan dugun mailen arteko banaketa hori arintzeko balio dutela horrelako lasterketek”, **gaineratu** nahi izan du Monterok.

Aurtengoa eginda, datorren urteko lasterketari begira jarrita daude korrikalariak. Ahalik eta partaide gehien batzea izango da helburua, korrikalari gehien eraman duen enpresaren saria jasotzeko. Baina, beti bezala, helburu nagusia korrika eginez ondo pasatzea izango da. Modu horretan, lankidetzeta eta **kiroltasuna** garaile izango dira beste behin ere.

Adiskidetasun: *Amistad, compañerismo.*

Gaineratu: *Añadir, agregar.*

Gerora: *Después, más tarde.*

Ikusgai: *Visible, expuesto.*

Lehiakor: *Competitivo.*

Kiroltasun: *Deportividad.*

BILBO ESKUALDEKO HOBEEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUEN BOSGARREN JARDUNALDIA



URRIAREN 31N OSAKIDETZAKO BILBO ESKUALDEAK, BOSGARREN URTEZ, BIDEBARRIETAKO LIBURUTEGIAN BILDU ZITUEN OSASUN ARLOKO 250 PROFESIONAL BAINO GEHIAGO, PROIEKTU BERRIAK PARTEKATZEKO ETA BERRIKUNTZAREN BIDEZ EGUNEROKOAN HOBETZEKO AHALEGINEAN TALDE LANEAN DIHARDUTENEN LANA BALIOETSIZ.

Jesus Larrañaga Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentearen agurraren ondoren, Osasun eta Kontsumo sailburu Rafael Bengoa jauna mintzatu zen, eta proiektuak oinarritik abiatuta lantzen jarraitzera animatu zituen bertaratuak: “Berrikuntzak behetik gora joan behar du proiektuetan gure eremuaren ahala adierazteko eta ideiak hobeak direlako”. Orain eta beti berrikuntzaren eta lidergoaren aldeko apustua egin behar dela gogorarazi zuen Bengoak: “Lider ona pertsoneri **aurre-rabidea** errazten diena da. Eta lider ona daukaten tokietan, pertsonen enpresari % 57 gehiago eskaintzen diote eta bertan gelditzeko aukera % 87raino areagotu ohi da”.

Ondoren, Lola Elejaldek eta

Carolina Rubiok Innobasque gizar-teko zenbait **eragilerekin** batera jorratzen ari den zenbait proiektu ezagutarazi zituzten, “Zuek, zeuen kabuz, ezin duzue” izenburupeko hitzaldian, baita etorkizuneko osasunaren eta gizar-tearen diseinua elkarren artean landu behar dugula gogorarazi ere.

HAINBAT PROZESUREN DESKRIBAPENA

Bilbo Eskualdeko **sendaketa gela**to hobekuntza taldeak –Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen izenean Maider Caminero EUDak jardun zuen, eta Alde Zaharra Osasun-Zentroarenean Mari Jose Fernandez EUDak– helburu honekin dihardu: gure zentroetan hain

garrantzitsua den eremu horretan antzeman dituzten hutsuneei konponbide egokia ematea.

Bestalde, Javier Ballaz jaunak gero eta zerbitzu eskaintza zabalagoa ematen ari den herritarrei zuzendutako Call Center unitatearen alderdi ezezagunenak azaldu zituen.

Jarraian, Zaintzailea zaintzeaz jardun zuen Errekalde Osasun Zentroko EUDA den Milagros Gabiolak. Besteak beste, bizitzaren bilakaerak ezarritako rolari aurre egiteko baliabideak eskaini behar zaizkiela azpimarratu eta PROCUI ikerketa lana aurkeztu zuen.

Estibaliz Gamboak, berriz, Paziente bizia-Paciente Activo programaren arduraduna denak, programa zertan datzan azaldu zuen. Gamboaren arabera, pazienteak, **bidelagun** izateko prestakuntza jaso eta inplikaturako profesionalen laguntzarekin, bere gaixotasunaren ardura bere gain hartzeko gai dira.

Azken hitzaldia, egitura eta aurkezteko erari dagokionez erabat berritzailea izan zena, Arabako Eskualdearen lantaldearen eskutik etorri zen. Hain zuzen ere, benetan paziente erreaktiboa den Ramon izeneko paziente batek benetako egoera erreala antzeztu zuen; eta modu horretan gauzak beste era batera egin behar direla gogorarazi zuten –sistemaren ardatz moduan pertsona eta bere bizitza egoera aintzat hartuz–.

Eta ekitaldiari bukaera emateko, Osasun eta Kontsumo Saileko sailburuorde Olga Riverak, Bilbo Eskualdeko Giza Baliabideen zuzendari Miren Ormaetxearen laguntzarekin, Eskualdeko VII. argazki lehiaketaren sariak banatu zituen.

SENDAKETA GELAK

Bilbo Eskualdeko
Prebentzio Oinarrizko
Unitateko Maider
Caminero eta Bilboko
Alde Zaharreko
Osasun-Zentroko
Mari Jose Fernandez
sendaketa gelen hobekuntzaz aritu ziren.

Aurrerabide: Progreso, avance.
Bidelagun: Compañero de viaje.
Eragile: Promotor, impulsor, agente.
EUD: DUE (Diplomado Universitario de Enfermería).
Sendaketa gela: Sala de curas.

BUSTURIA, ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEAN ATSEDENLEKU



ARRAINA FRESKO, GATZETAN, **KETUTA**... KONTSUMITZEN ZEN ERDI AROAN, ETA DIETAKO OINARRIZKO PRODUKTUA ZEN, ARRAZOI ERLIJIOSOENGATIK, BATEZ ERE. SARDINA, BISIGUA, **SARDINZARRA** ETA BAKAILAOA ZIREN PENINTSULA IBERIKOKO BARRUALDEKO MERKATUETAN EGON OHI ZIREN ARRAINAK. ETA BUSTURIA, ITSASOTIK GERTU ETA ERREGE BIDEAN ATSEDENLEKU, IBILBIDE HORREN ERREFERENTZIAZKO HERRIA IZAN ZEN.

Gaur egun, herri lasaia da Busturia, Urdaibaiko erreserbaren barruan dagoena, Gernika eta Bermeo artean bizitoki atsegina. Turismoari begira ere ari dira ekimenak lantzen eta proiektuak bideratzen. Esaterako, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea berreskuratu nahi dute ibilbide kulturala eta turistikoa bilakatzeko. Historiari erreparatzen badiogu, aipatu beharra dago Ardoaren eta Arrainaren Ibilbideak Urkiolako mendatea zeharkatzen zue-nean izugarri erabiltzen zela, batez ere XVIII. mendearen hasierara arte, harik eta Urduñako mendatea zeharkatzen zuen Gaztelako errege bidea hobetzeko lanak egiten hasi ziren arte.

XX. mendera arte merkataritza ibilbidea izan zen, hau da, **mandazainek** eta **errekardariek** (Bizkaiko barrualdeko merkatuetan arrain freskoa saltzen zuten emakumeek) bertatik igarotzeari utzi zioten arte. Gaur egun, berriz, ibilbide turistikoa eta kulturala bihurtuta, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbideak XXI. mendean bere protagonismoa berreskuratzeko erronkari egiten dio aurre.

URDAIBAICO ERRESERBA

Turistak erakartzeko nahikoa argumentu baditu Busturiak, eta horien artean nagusi Urdaibaiko erreserba da. Urdaibaik 220 km koadroko azalera du eta 45.000 biztanle bizi dira, horietatik 1.794 Busturiako udalerrian. Urdaibaik 22 udalerritu ditu, eta horietako hamaika oso-osorik daude erreserba barruan, horien artean Busturia.

Iparraldean kostaldea du Busturiak, eta herriak sekulako ikuspegiak eskaintzen ditu, batez ere, goiko auzoetatik. Estuarioko sarrera Matxitxako eta Ogoño

lurmuturrek eta Izaro uharteak zaintzen dute, eta gainerako muga geografikoak Oka ibaiaren harroek definitzen dituzte.

BURDINOLAK

Arkitektura erlijioso, zibila, paisaia zoragarriak... askotariko eskaintza du Busturiak. Arkitektura zibilari dagokionez, **burdinolak** eta jauregiak dira aipagarrienak. Esaterako, Alarbin Goikoa izeneko burdinola ikusgarria da.

Altamira eta Paresi artean dago. Lehendabizi burdinola izan zen, eta gero errota. Burdinolek XVIII. mendetik aurrera izandako gainbeheraren ondorioz egin beharreko aldaketen adibide ona da.

Seletako burdinola ere ikusgarria da, eta, harrigarria badirudi ere, burdinola barruan ezta egiteko instalazio bat dago, Erle Tokia. Ez dira asko gaur egunera arte iraun duten horrelako instalazioak. Mape ibaiaren alboan dago, natura aldetik oso interesgarria den ingurune batean.

MADARIAGA DORRETXEA

Madariaga dorretxea ere paregabeko eraikina da, Urdaibaiko estuario osoa begitatzeko aukera ematen duen puntu estrategiko batean kokatua. Ziurrenik XV. mendean eraiki zuten, babes lanetarako dorretxe banderiza gisa.

Burdinola: *Ferrería.*
Errekardari: *Vendedor ambulante.*
Ikusmira: *Vista.*
Ketu: *Ahumar.*
Mandazain: *Arriero.*
Sardinzar: *Arenque.*



Natur ibilbideak Busturian

Natur ingurune dotorea da Busturia, eta mendi ibilbideekin gozatzeko aukera izango dute bisitariek. Besteak beste, Altamira, Goierri eta Axpe artekoa egiteko aukera izango dute, baita Altamira eta Malluku artekoa ere. Hirugarrena San Kristobal, Axpe eta Txatxarramendi artekoa da, eta laugarrena Axpe, Larrazabale eta San Bartolome artekoa. Guztiak dira egokiak familian egiteko edo seme-alabekin, izan ere, ez dira oso luzeak eta malda handirik ez dute aurkituko bisitariek. **Ikusmirak**, berriz, sekulakoak izango dira, itsasoz eta mendiz inguratutako bazter dotore honetan.



ENPLEGATUAREN ATARIA

- Osakidetzako datu pertsonaletara eta profesioaletara jotzeko sarbide erraza eta segurua.
- Begiratu zure
 - Nomina
 - Karteldegia
 - Hizkuntza-eskakizuna eta euskarari buruzko datuak.



- Datu pertsonalak berehala aldatzeko aukera.
- Zure lanpostutik eta etxetik sartu ahal zara.
- Erabilera berriak apurka-apurka gehitzeko egokitua.



OSATUBERRI Interneten:

<http://www.prosakidetza.net/groups/osatuberri-aldizkaria/>

Osakidetzako profesionala bazara eta zure iritzia editatu nahi baduzu:

- 1- Webgunera sartzeko www.prosakidetza.net klikatu.
- 2- Jarraian erabiltzailea eta pasahitza sartu.
- 3- Prosakidetza webgunera heldu eta *Taldeak* klikatu.
- 4- Hortxe *Osatuberri* aldizkaria taldean parte hartzeko aukera izango duzu.

Harpidetu zaitez!

aldizkaria etxean jaso nahi?

Osakidetzako langilea bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, bidali itzazu zeure datuak helbide honetara: osatuberri@osakidetza.net

Ongi
etorri
Osatuberri
mundura

> osatuberri@osakidetza.net

945 006 314

